ttipi ttapa

375

2004ko ekainaren 3a • XXIV. urtea

Endarlatsa-Irun hitzarmena

04

150 urteko ezin moldatuaren ondotik, Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak Endarlatsa eta Irun bitarteko errepide zatia moldatzea adostu dute.

Bidasoako Musika Eskolen Topaketa

16

Maiatzaren 22an egin zen Donezteben Bidasoako Musika Eskolen laugarren topaketa, 500 musikari baino gehiago bilduz. Hurrengoa Irunen eginen da

03

Bittoriano Artzuaga

Artile lana pikardia bihurtua

MULTIOPTICAS
LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

eta

GAES
ENTZUMEN ZENTRUAK

Orain zugandik gertuago

Bisita gaitzazu

IKUSMENAREN DOAKO AZTERKETA
Tel.: 943 63 99 01

Mendibil

ENTZUMENAREN DOAKO AZTERKETA
Tel.: 943 63 99 10

Mendibil Merkatal Gunea • 11. Lokala • 20302 IRUN

MUEBLES AMETS

Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak

larunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

Sarrera BERAtik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Udaberriko eskaintza
Lehendabiziko urtean finantziazioa doan

DATUAK...

- Ekainaren 6an 79 urte beteko ditu Bittoriano Artzuaga, Urrozko harigileak. 15-16 urterekin hasi zen haria egiten.
- Ez du aspaldian hutsik egiten eskualdeko merkatu eta feriatan. Berak garbi erraten du horixe dela gehien gustatzen zaiona, jendearekin egotea, erosleekin solastea eta funtsean, ferietako giroa bizitzea.
- Jendeak bertzerik uste badu ere, berak ez ditu jantziak josten: «Nik haria egiten dut bakarrik».

Argazkia: Joseba OLAGARAI

Bittoriano ARTZUAGA *Urrozko harigilea*

«*Tanga* bezalako jantzi modernoak antigualeko hariarekin egiten ditut»

Joseba OLAGARAI

Zein izaten da zure lana?

Artiletik haria ateratzea. Horretarako ardiaren ilea bihurritzen da koroilan. Koroila, bertze batzuk korola, bertze batzuk maratila deitzen diote eta erdaldunek chabilla deitzen diote. Ardiari ilea moztu, garbitu eta pixkanaka harrotzen da lehenik. Gero, koroilan bueltan-bueltan ibili eta haria egiten da. Nik haria egiten dut eta arrebak egiten dizkit galtzerdiak. Bertze emakume batek txalekoak egiten dizkit, kuleroak bertze batek.... Hamabortz-hamasei urtetan hasi nintzen, beraz hirutan hogei urte baino gehiago daramazkit lan honetan, haria egiten. Bertze lanak egiten nituen, Diputazioarendako karreteran eta, baina lana akituta, afari-berendua egin eta haria egiten nuen, udan guttitan, baina neguan egunero. Bolada batean, urteko 50 bat pare galtzerdi egiteko haria egiten nuen. Emakume batek eskatzen zidan eta 25 galtzerdi pare beretzako egiten zituen eta bertze 25ak neretako, saltzeko. Mendi mutilentzat galtzerdiak egiten genituen. Denbora hartan, diputazioarendako lan egin eta zortzi orduren truke 12 pezeta irabazten genituen eta galtzerdi parea 30 pezetan saltzen zen. Gaur, araberan prezio hori egin behar baluke!

> «Denbora batean, Diputazioarako zortzi ordu egin eta 12 pezeta irabazten nuen eta galtzerdi parea 30 pezetan saltzen zen. Orain prezio hori eginen baluke!»

Behiak bai, baina ardirik ez duzu etxean. Nondik ekartzen duzu artilea?

Iturengo baserri batetik ekartzen dut eta artile beltza, berriz, Urroztik, ardi beltxak baititu. Batzuk galtzerdiak hari beltxa eta txuria nahasia egitea nahi dute eta horretarako ibiltzen dut. Badakizu, klienteak eskatzen duena eman behar diozu!

Zapinak, gonak, denetik saltzen duzu, baina jantzi modernoagoak ere badituzu...

Tangak egiten dizkidate, kantzontzillo moderno horietatik, antigualeko gauzekin eginak. Kuleroak ongi saltzen dira, 12-14 banituen ekarriak baina denak saltzen dira puxka-puxka. Frantzia aldean eta Gipuzkoan saltzen da gehiena. Bizkaian ere saltzen da.

Horrelako gauzak ikusita zer erraten du jendeak?

Barre egiteko bidea dela, harritu egiten dira. Nik erraten diet Jaungoikoak Adan eta Eva larrugorritan paratu zituenean, Evak galtzontzilloak artilearekin egin omen zituela.

Hainbertze urte haria egiten eta hariarekin egindako janzkiak saltzen, anekdotaren bat ere izanen duzu kontatzeko...

Tafallan arotx batek burni bat sartu zuen kaltzontzillo barrenean, irri egiteko. Badakizu zer itxura zuen, ez?

Noiz arte arituko zara lanean?

Ongi naizen bitartean segituko dut, gustora aritzen naiz denborapasa. Gainera, jende tartean ateri eta ederki! Horrako emakume horiekin eta. Parre egiten dute eta ni gustora. Negarrik ez du inork egiten. Pazientzia eta loa omen dira debalde ditugun gauza bakarrak eta bietatik nahikoa badut, beraz, segi!

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Alvaro Miranda, Francisco Iribarren, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri eta Javier Zuriarrain, sinadura ekitaldian.

N-121-A ERREPIDEA ENDARLATSA ETA BEHOBIA ARTEAN

Hitzarmena sinatu dute azkenean Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoak

N-121-A errepidean, Endarlatsa eta Irun arteko zatia moldatzeko ezaugarriak, jabetza eta erabilera baldintzak zehazten dituen hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 25ean Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak, Etxalarko Benta hotelean egindako ekitaldian. Francisco Iribarren Fontanes Nafarroako Gobernuko presidente ordeak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Diputatu Nagusiak sinatu zuten hitzarmena. Mahaian, Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilaria eta Javier Zuriarrain, Gipuzkoako Bide Azpiegiturako diputatua izan ziren. Ekitaldian parte hartu zuten, gainera, Bortzirietako bortz alkateek eta hainbat zinegotzik eta irrati, telebista eta prentsa idatziko hainbat kazetari ere bertaratu ziren.

Aitor AROTZENA

Apirilaren 7an Iruñean jakinarazi zen Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Diputazioaren arteko akordio honen edukia. Endarlatsa eta Irun arteko errepide zatiaren 6.300 metroen moldaketa Gipuzkoak hartuko du bere gain oso-osorik eta hamabortz-hogei urteren buruan bidearen jabetza emanen dio Gipuzkoari.

Sinaduraren ondotik, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak hartu zuen hitza lehenik eta akordioa posible egin duten alde guziak zoriondu zituen. Garaile eta garaiturik gabeko akordioa dela azpimarratu zuen, konflikto historiko bat gainditu duena. «Gutxitan egonen da errepide moldaketa bat kasu honetan bezain justifikatua» adierazi zuen Gonzalez de Txabarrik.

Francisco Iribarren Nafarroako Gobernuko presidente ordea ere kontent ageri zen, 150 urteren ondotik, posible izan baita akordio batera ailegatzea eta errepidea moldatzea. *«Horrek bi administrazioek herritarrei eragiten zien arazoa moldatzeko hartu duten konpromisoa erakusten du»* erran zuen presidente ordeak.

Jose Luis ETXEGARAI *Nafarroako Parlamentuko Azpiegitura Batzordea*

Hainbat bileren ondotik, Endaratsa eta Behobia arteko errepide zatiak soluziorako bidea hartu du...

Lan aunitz egin genuen, alkate nintzenean ere saiatu nintzen hau lortzea, baina akordioa lortzea hagitz zaila zen. Baziren 150 urte arazo honekin eta ez Nafarroak eta ez Gipuzkoak ez zuten inondik ere moldatu nahi. Parlamentura joan nintzenean mozio bat aurkeztu nuen, CDN eta UPNrekin negoziatu behar izan nuen, baita Gipuzkoako diputazioarekin eta orain adostasunera ailegatu dira. Hau egun haundia da zona honentzat eta hemengo jendearentzat. Hau da arazo haundia behin betikoz moldatzeko ematen dugun lehen pausua.

Errepide berria egin artean urte batzuk joanen dira. Bitartean, arriskua eta asteburuetako kamioi pilaketek berdin segituko dute...

Ideia da proiektua segidoan, ekainaren lehendabizikoko astean lehiaketara ateratzea eta hortik lanean hastea. Aste hondarretako arazoa bertze bat da: sektore ekonomiko aunitz afektatuak dira eta momentuan ez daneurririk hartu kamioien joan-etorria galerazteko. Gainera, ez gara debekatzearen aldekoak, uste baitugu bakoitza bere libertadearekin ibili behar duela eta kamioiak autobidetik ibiltzera behartzen baditugu, beraiei ere kalte bat sortzen diegu. Denen artean kontu haundiz eta ahal den bezala aitzinera segitu beharko dugu obra egiten den bitartean.

Noizko izanen da errepide berria?

2007an inaugurazioa egiteko ideia da eta horretarako enplazatu dira Nafarroako presidente ordea eta Gipuzkoako Diputatu Nagusia, urte horretan leku berean inaugurazio ekitaldia egiteko. Nik uste beteko dela, laneko gogoa bada eta ikusi da beharra ere badela eta arazo honi soluzioa eman behar zaiola derrigorrez. Egin duten promesa beteko dutela iruditzen zait.

Jabetzaren afera moldatu behar izan da bidea egin ahal izateko...

Hitzarmenak erraten du obra hasi eta hogei urteren buruan Gipuzkoari emanen zaiola errepidea. Obra akautzen zenetik hamabortz urtera ere negoziatu zuten, baina azkenean lehendabizikoa aukeratu dute. Arazorik haundiena hori zen eta hori konpondu denean, dena errexagoa izan da.

Proiektua egin gabe badago ere, Endarlatsan zubi berria eginen da.

Endarlatsako zubia erdi bana eginen dute Gipuzkoak eta Nafarroak. Hortik Irunera Gipuzkoak eta hortik Berara Nafarroak eginen dute.

"2007. urtean inaugurazioa egiteko gelditu dira Nafarroako eta Gipuzkoako ordezkariak"

Hitzarmenarekin batera adostutako egutegiaren arabera, errepide berria hemendik bortz urtera irekiko da. Oraindik proiektua erabat finkatu gabe baldin badago ere, jakina da Endarlatsan zubi berria eginen dela. Gainerakoan, bidearen %73an hiru karril eginen da, bat ibilgailu astunentzat eta Irunetik hurbilen dauden 700 metrotan lau karril ere izanen dira. Gipuzkoako Diputazioa izanen da lanak egiteaz eta ordaintzeaz arduratuko dena. Endarlatsako zubia, berriz, erdi eta erdi ordainduko dute Gipuzkoak eta Nafarroak, Nafarroako Gobernuak egindako proiektuarekin.

Joan den urtera arte Lesakako alkate eta gaur egun Nafarroako Parlamentuko Azpiegitura Batzordeko presidente ordea den Jose Luis Etxegarairen erranetan *«proiektua oraindik ez da egina, baina bortz alternatiba aztertzen ari gara. Bi bazterrera utziko dira, urarekin arazoak sortzen dituztelako. Bertze bi badira Lesakan bama zuzenean pasatzen direnak, Garaiartik sartuz, bat tunelarekin eta bertzea mendia moztuta. Hirugarrena Antzuzelaiko harrobi ingurutik pasatzen da. Hiruek ere kostu haundikoak dira, baina hoberenak dira eta hiruetako bat gauzatuko da»*.

150 URTEKO EZIN MOLDATUA

Endarlatsa eta Irun arteko errepidea egitea ez zen errexa izan bere garaian ere. 1845eko maiatzean, Nafarroak Gipuzkoako muga bitarteko errepidea akautu zuen eta hortik aitzinera Gipuzkoak egin behar zuen Irun bitarteko bidea. Orduan, Irungo Udalak proiektua aztertzeko batzordea izendatu zuen eta bere teknikariek hasieran aztertutako trazatua (Lesaka eta Oiartzun barna) baztertu egin zuten. Ondotik egin zen alternatiba, gaur egungo bidea, eperik gabe gibeleratu zuen Gipuzkoako Batzar Orokorrak, oraindik ez baitzen Irun eta Madril arteko trenbide proiektua zehaztua. Bortzirietako alkateek (azkeneko hogei urteotan bezalaxe) errepidea Irun eta itsasoraino egitea eskatzen zuten. Orduan, Nafarroako diputatuek, Gipuzkoa bazterrera utzita, gaur egun pentsaezina izanen litzatekeen estrategia gauzatu zuten: partikularrei lurra erostea errepidea egiteko. Orduan erabakiak orain baino lehenago hartzen ziren, nonbait, eta 1851eko urtarrilaren 31n lurrak erostea onartu zen eta sei hilabete beranduago, uztailaren 23an, jabeei ordaindu eta lurrak Nafarroarenak ziren. Segidan, Pedro de Ansoleaga ingenieroak proiektua egin eta lanak 1852an akautu ziren. Endarlatsako zubia ere orduan egin zen. Azkeneko hamarkadetan errepidea moldatzeko eskaria behin eta berriz egin da Bortzirietan.

ARGAZKIA: GOMEZ

Endarlatsako zubia 1933. urtean. Gerra Zibilean lehertu eta gero egin zuten gaur egunekoa.

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Comission Paritaire: En cours
Tirada (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net

Argitaratzailea (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea (Président):** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea (Gérant):** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **Publizitatea (Publicité):** Kulturkari, SLU **Administrazioa (Administration):** Amaia Goia. **Berriemaileak (Collaborateurs):** Mikel Itarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gofi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
Inprimategia (Imprimeur): Gertu. **Erakunde Laguntzaileak (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskara, hizkuntza eskubideak eta osasun-administrazioa

Euskaldunok eskubidea dugu osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko. Eskubidea dugu, hortaz, osasun administrazioa osatzen duten langile (mediku, erizain, administrari, pediatra...) nahiz zerbitzu guztiekiko hartu-emanak euskaraz izateko.

Hau, ordea, ez da horrela, lanpostu horietako gehienetan ez baita euskara jakitea eskatzen eta honen adibidea baino ez da Nafarroa nahiz Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban lanpostu berrietarako oposaketetan euskara ez eskatu izana.

Egoera honen aitzinean Euskal Herrian Euskaraz-ek Euskal Herriko hainbat herritan «Osasun Administrazioan Euskaraz!» izeneko ekimena abian jarri du eta guk ere eskaera honekin bat eginez maiatzean zehar herritar aunitzen kexak jaso ditugu (250tik goiti).

Kexa hauekin guztiekin zer?

• Jasotako kexa guztiak ekainaren 3an Lesakako osasun etxean aurkeztuko ditugu, Bortziriarron eskaeraren berri zuzenean izan dezaten eta hori betetzeko hartu beharreko neurriak har ditzaten.

• Euskal Herri osoan bildutako eskaera guztiak Behatokiaren esku utziko ditugu, osasun administrazioaren benetako egoeraren gaineko azterketa egin dezan.

Zuk ere zure hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz euskararen benetako ofizialtasuna ahalbidetzea nahi baduzu egin ezazu zure eskaria.

Lesakako Euskal Herrian Euskaraz

Denbora-pasekin eta euskararekin dibertitzeko, Luma

Luma, euskarazko denbora-pasen hilabetekariak, bere burua ezagutzeko kanpainari ekin dio. Horregatik Luma hilabetez doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi dizuegu.

Aldizkariarekin batera jasoko duzuen postalean datuak bete eta bidaltzea baino ez da egin behar, eta berehala jasoko dituzue etxean, euskarazko hitz-gurutzatuak, letra zopak, lojika jokoak, hitz gezidunak etab biltzen dituen aldizkaria.

Gainera, postalean dagoen hitz gezidunarekin froga egin eta hitz guztiak asmatuz gero, 2 lagunentzako asteburu baten zozketan hartuko duzu parte.

Parkean, etxean, hondartzan, mendian,...Luma: atsedenaren definizioa

Ongi etorri etxera Fernando!

23 urte dira atxilotu, torturatu eta gatibu kartzelan sartu zintuztela. 23 urte dira Zugarramurdi herrian zure falta sumatzen dela. 23 urte dira herritik hainbat kilometrotan bahitu zaituztela. Baina 23 urte dira zure aldeko elkartasun taupadak bizirik dirautela. 23 urte dira senide eta lagunen maitasun seinaleak ailegatzen zaizkizula.

Azkenean, etxera itzuliko zara. 23 urteren ondotik azkenean etxean! Poza da gure bihotzetan nagusitzen dena, nahiz eta jakin aspaldi gure artean egon behar zenuela. Halere burutan dugu, zu bezala beste 700 Euskal Preso Politiko daudela, dispertsio politikak segitzen duela, isolamendua, azken momentuko transladoak, bisita ukapenak, oinarrizko eskubideen urraketak egunero ematen direla. Baina tira, gaurko eguna, egun zoriontsua da, etxerako bidea hartuko bait duzu. Merezi duzun harrera ematea espero dugu. Horretarako ekainaren 9an, arratsaldeko 4etan hitzordua dugu Otsondo gainean, Erratzu, Arizkun eta Elizondotik pasatuko gara Fernandok bere argazkia kentzeko ostatuetatik, bertsolari, altxafero eta pintxoen laguntzarekin. Ongi etorri Fernando! Euskal Preso Politikoak etxera!

Baztango Amnistiaren aldeko mugimendua

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •

ARGIA 2004-05-23

«Gaur egun gurasoek pentsatzen dute beren semea hamabi urterekin onena delako dena egina dagoela. Baina hamabi urterekin nahiz onena izan, ez dago inor munduan firmatuko duenik mutiko hori onena izango dela hamasei urterekin. Horregatik esaten dut futbol profesionala oso erreala ez den egitura batean oinarritzen dela. Baina ez da futbola bakarrik, bizitza da, eta bizitzari buelta bat eman behar diogu».

Joxe Mari BAKERO
Goizuetako futbolari ohia
ARGIA 2004-05-23

«Hasieratik jakin behar da kartel bat ez dela koadro bat. Zure gustu pertsonalaz aparte, kontuan hartu behar duzu nagusi eta haurrei zuzendua dela, mundu guztiari. Pentsatzen dut bestak ezagututa errexagoa dela kartela egitea. Akaso sekretua irudi xinplea baina aldi berean indarra duena egitea da, ahalik eta jende gehienera ailegatzea eta herria errepresentatzea».

Irantzu PASTOR
Lesakako bestetako kartel irabazlearen egilea
D.Navarra 2004-05-27

• 11 GALDERA LABUR•

Zenbat denbora duzu bateria ez duzula jo?
Oraintxe bertan, ordu batzuk bertzerik ez.
Nola izan zen baterijole bezala zure hasiera?
Bueno, ttiki-ttikitako afizioa zen eta garbi ikusi nuen nere etorkizuna izan zitekela.
Gurasoak sukaldariak dituzu eta familian orohar ostalaritza arlokoa. Zuk musika nahigo, ez?
Bietako bat aukeratu behar eta, musika nahiago bai.
Mecaniciens, Baldin Bada, Paralelos, Anje Duhalde, Alaitz eta Maider, Sutagar, Fjord... zeinekin gelditzen zara?
Bueno, denekin. Denak izan dira etapa bat nere bizitzan.
Fjord nola ahoskatzen den zenbatek galdetu dizute?
(ja, ja...) Zu ez dakit zenbatgarrena zaren. Aunitzek eta aunitzek, ia denek.
Musikaria ogibidez. Zer gehiago egiten duzu?
Attari eta amari lagundu Aterpen; ehizin, arrantzan eta bizikletan ibili; Arantzan egon...
Arantza eta Bizkaialdea... Bizkaialdea eta Arantza... Iban aranztar petoa ez?
Bai, bai, aranztarra. Bizkaia maiz bisitatzen duen aranztarra.
Larunbat arratseko plana, kontzertua izan ezean...
Bueno, normalean ez naiz hagitz juergazalea. Nahiago dut lasai egon ibiin, edo itsasaldean buelta bat eman, trago batzuk hartuz eta zerbait pikatuz.
Kontzertuetan harat eta hunatean ibiltzean, itxia ere gustora hartzen...
Ni itxezalia naiz, bino kontzertuetan ibiltzen garenok ez dugu gogo haundirik izaten kontzertutan ibiltzeko.
Musika agenda betea?
Momentuan, Fjordekin 25 emanaldi ditugu kontratatuak eta bertze 20 bat ateratzea espero dugu.
Aurtengo oporrak?
Iraila bukaeran edo.

Iban ZUGARRAMURDI ALTZURI
Aranztar baterijolea

SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganadularentzat pentsunik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • ✆ 948 630 763

ERREKALDE
OSTATUA
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOCATAK

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gas • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

KULTURA

Etxepare Literatur Saria antolatu dute Nafarroako Euskara Zerbitzuek

Lanak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Udal Euskara Zerbitzuek Etxepare Literatur Saria izeneko lehiaketa berria antolatu dute. Bi helburu nagusi izanen ditu Etxepare Literatur Sariak. Alde batetik, literatur sormena eta produkzioa sustatu eta laguntzea eta bertze aldetik literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izanen den saria sortzea Nafarroan. Bertze zenbait lehiaketa edo sari badira Nafarroan, normalean toki-entitate jakin batzuk deituak, baina sari berri honek Nafarroako udal aunitz biltzen ditu, tartean ttipi-ttaparen eremukoak, hedadura zabalekoa da eta sarien zenbatekoengatik ere bertzelako dimentsio bat dauka. Euskara Zerbitzu horiek hartzen dituzten udalek 140.000 biztanle inguru biltzen dituzte. Beraz, hedapen handiko ekimen publikoa da, eta, ondorioz, eragin eta interes sozial zabala du.

ARTXIBOKOA

Literatur sormena eta produkzioa sustatzea da lehiaketaren helburu bat.

Literatur esparruan narrazio lanak sarituko dira, bi arlo ezberdinetan: batetik, haurrentzat egindako narrazioak eta bertzetik, helduentzako lanak. Helduentzako narrazio saria 6.000 eurokoa izanen da eta haurrentzako narraziokoa 4.000 eurokoa.

Haurrentzako narrazioaren kasuan, deialdi honetan 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako lanak aurkeztu ahalko dira. Hurrengo deialdian, berriz, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako narrazioak izanen dira onartuko direnak. Hurrengo deialdietan ere adin tarte bat eta bertzea txandakatuko dira. Euskaraz sortutako narrazioak aurkeztuko dira, jatorrizkoak eta aitzinetik saririk jaso ez dutenak edo argitaratu ez direnak. Atal bakoitzean ezin izanen da aurkeztu lan bat baino gehiago.

Lanak makinako moldez idatzita aurkeztuko dira, DIN A4 formatuan. Helduentzako narrazioak guttienez 100 orrialde izanen ditu, eta haurrentzako narrazioak luzera librea izanen du.

Lanaren lau kopia aurkeztu beharko dira, izengoitiaz izenpeturik eta kartazal itxuan. Kartazalaren kanpoaldean Etxepare I. Literatur Saria idatzi beharko da, eta baita aukeratutako atala ere, helduentzako edo haurrentzako narrazioa, alegia. Kartazal horren barnean eta bertze kartazal itxi batean honako datuak erantsi beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonozenbakia, helbide elektronikoa eta nortasun agiriaren fotokopia. Idazlanak honako helbidera bidaliko dira: *Sakanako Mankomunitatea-Euskara Zerbitzua, Uriz kalea, 38. 31830 Lakuntza-Nafarroa.* Antolatzaileek azpimarratu dutenez, ez dira onartuko posta elektronikoz bidalitako originalak.

Lanak aurkezteko azken eguna 2004ko azaroaren 30a izanen da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2005eko martxoaren 31 izanen da.

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

bortzIRUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ERROTAZAR
Haragia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630088
BERA

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela, bainu eta TBrekin
Bera - Nafarroa

BERA

Altzateko bestak ekainaren 4tik 6ra ospatuko dira

Ertz jaialdia eta ikastolaren eguna ere asteburu honetan izanen dira

Amaia eta Ainhoa

Datorren asteburuan, ekainaren 4,5 eta 6an, ospatuko dira Altzateko bestak. Urtero bezala, egun hauetan izanen da zer egin eta zer ikusi. Ortziralan, 20:00etan III. Pilota Goxo Besta izanen da Maristasen Frontoian, antolatzaileek dioten bezala, pilota eta alukeriak gustuko dituen guztientzat idekia. Puntu Txapelketa izanen da eta sariak banatuko dira bukaeran. Arratsean, 22:00etatik aintzinerat, Altzateko ostatuetan kontzertuak izanen dira. Estilo desberdinetako musika hiru ostatuetan aditzeko aukera izanen da: Rock, Blues eta DJak. Dena den, altxaferoa larunbatean botako da 12:00etan Larrakaitz txarangak, buruhaundiek eta erraldoiek lagunduta. 16:00etarako Matzada inguruan haurrentzako Txirrindula Txapelketa eta Ginkana antolatu dira. Opariak eta Bonba Japoniarrak ez dira faltako. Ilunabarrean, 20:00etan, bertsolari famatuek beraien saioa eskainiko dute Bertso Poteoan eta 21:00etan Altzateko txistulariek kalejirari hasiera emanen diote. Suzko zezena gauerdian aterako da eta arratsean Larrakaitz txarangak alaituko ditu Altzateko txokoak. Azkeneko egunean, igandean, Berako Ehizi eta Arrantza elkarteak antolatuta, Arrantza Lehiaketa eginen da, 9:00etatik 12:00etara. Zizarearekin arrantzatu beharko da. Bitartean, 10:00etan Lizuniagako Tiro Zelaian Ehiza Ibilaldia eginen da. Arratsalde eta ilunabarrean musikak eta dantzak hartuko dute lekua. 18:00etan Gure Txokoako dantzariek saioa eskainiko dute eta 20:30etatik aintzinerat Altzateko Plazan Irats taldearekin dantzaldia izanen da. Bestak akautzeko Suzko zezena aterako da karrikara.

Ikastolaren Eguna 2004

Ikasturte amaiera hurbil dagoela, urtero bezala, Labiaga Ikastolak Ikastolaren Eguna ospatuko du datorren igandean, ekainaren 6an. Horregatik ikastolak guraso, bazkide, ikasle-ohi eta nahi duten guztiei gonbidapena zabaltzen die. Ekitaldiz betetako eguna antolatu dute. Goizeko 10:30etan Saskibaloiko 3x3 txapelketaren finala jokatuko da. 11:00etan Kultur Etxean antzerkiari tartea eginen zaio. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek ingelesez prestatutako antzerkia eskainiko dute eta ondoren 6. mailakoak bertze lan bat taularatuko dute. 11:30etan guraso eta irakasleak futbolean arituko dira DBH 4.mailako ikasleen aurka. 12:00etan Altzateko Ikastolan eskulanen erakusketa zabalduko da eta hainbat material jarriko da salgai: Nafarroa Oinez 2004ko materiala, Ikastolako kamixetak eta Euskal abestien liburuxkak. Ordu berean, Lehen Hezkuntza eta DBHko 1.ziklokoentzat jokoak izanen dira. 14:00etan Ikastolako sukaldariek prestatutako bazkaria izanen da baina lehenago, 13:00etan kalejira abiatuko da Iamoteneatik. Ederki bazkaldu ondotik, musika izanen da giroa alaitzeko.

Cederna Garalur

Maiatzaren 17ko Udalbatzarrean, Berako Udalak Cederna-Garalur Elkarteak eskualdeko Garapen Eragilea kontratatzeko aurkeztutako komenioa aztertu eta eztabaidatu zen. Julian Lekuona zinegotziaren arabera, ez dago ongi orain dagoen pertsona bera kontratatzeagatik Udalari gastua bikoiztea, pertsona berria kontratatuz gero dirulaguntza hartzeko aukera bada. Aralar taldeak, pertsonaren esperientzia eta formazioa kontutan hartu behar dela uste du. Alfredo Goienetxe zinegotziak urte baterako hitzarmena sinatzea proposatu zuen Cederna eta Europako dirulaguntzekin zer gertatuko den ezin baita jakin. Eztabaidaren ondotik, bozkatu eta 3 aldeko botu (Aralar), 3 kontrako (Herrialde) eta 3 abstentzio (EA) izan zen emaitza. Beraz, behin-behineko alkateak kalitatezko botoa eman eta Arantxa Arregik, eragileak, bere lan eta eginkizunekin jarraitzea erabaki zen.

UTZITAKO ARGAZKIA

Udaleku irekiak

Jesusen Bihotza ikastetxeak udalaren laguntzaz hirugarren urtez udaleku irekiak antolatu ditu uztailaren 1etik 31ra. 1997tik 2001 urtera jaiotako haurrei zuzenduak dira eta 10:00etatik 13:00etara eginen dira. Izen ematea 45 euro ordaindu behar da (gosaria barne) eta ekainaren 11 baino lehen egin behar da, 948 630009 telefonora deituz.

ANSONEA jatetxea
Egunerokoa menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ✆ 948 631155 • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera • Tlfna: 948 630 735 • 607 406 781

✆ 948 631462
Altzate 1 • BERA
Kirail

LESAKA

Bortzirietako igerileku estalia herrian eginen da

Irantzu Pastorren kartelak iragarriko ditu aurtengo Sanferminak

Aitor AROTZENA

Udalak gaur egungo igerilekuak egokitzea eta horrela Bortzirietako igerileku publiko estalia egitea proposatu zuen azken batzarrean. Modu berean, Arantza, Bera, Etxalar eta Igantziko udalei erabaki honekin bat egitea eskatu zaie, Nafarroako Gobernuarekin behar diren tramiteak egiteko. Hiru herri ttikienak hasiera-hasieratik ados zeuden, baina Berako udalak, gaur egun horretarako dirurik ez badu ere, etorkizunean bere herrian igerileku estalia egitea pentsatzen zuen. Ideia hori erabat bazterrera utzi gabe, orain Lesakako Udalarekin bat egitea erabaki dute, kontuan hartuz Iruñetik guttienez 5.000 biztanle eskatzen dituztela igerileku estali baten eraikuntza diruz laguntzeko. Azkenean, beraz, Lesakan eginen da igerileku estalia. Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkateak jakinarazi digunez, urte honetan berean eginen dute proiektua idazteko lehiaketa eta heldu den urtean lanak hastea espero dute. Igerilekuetako ostatutik begiratuta ezkerreko putzua estaliko da eta bertze zenbait zerbitzu eskainiko dira.

UTZITAKO ARGAZKIA

Maiatzaren 16an egin zen Bigarren Akordeolari Topaketa, Doneztebe, Elizondo eta Lesaka bertako akordeolari taldeak bilduz. Guzira berrogei bat akordeolari bildu ziren Lesakan.

Sanferminetako azal eta kartel lehiaketa

Aurtengo Sanferminak iragarriko dituen kartela Irantzu Pastor Ordokik egina da, bera izan baita irabazle lehiaketan. Portadako azal eta kontrazalei dagokienez, Leitzan bizi den Mertxe Biurrarenak eta Imanol Lopez Perotxenak egindakoak izanen dira.

Energia aurrezteko apostua

Nafarroa osoan eginen den Energia aurrezteko apustuaren barnean, Lesakan trafikoa arautzeko planaren aurkezpena eginen da ekainaren 5ean. Bertze aldetik, urte osoan, hilabeteko lehen astelehen eta asteartea Autorik Gabeko Egunak izatea proposatu du Udalak. Ekainaren 7an eta 8an abiatuko da ekimen hau.

PERTSONAIA

Jone FAGOAGA

Skeet Olinpikoan Espainiako Kopa irabazi du berriz ere

Jone Fagoaga tiralari lesakarrak Skeet Olinpikoan Espainiako Kopa irabazi zuen maiatzaren 23an, Irungo San Martzialgo tiro zelaian jokatutako txapelketan. 75 plateretatik 61 hautsi zituen Jonek eguraldi kaxkarrari aurre eginez, eta bigarrenari bederatzi platereko abantaila atera zion. Aipagarria da laugarren aldia dela Jone Fagoagak txapelketa hau irabazten duela eta aurten parte hartu duen txapelketa guzietan gailendu dela. Aitzinera begira, uztailean, Sanferminen ondotik, Mallorcan jokatuko den Espainiako txapelketan parte hartuko du, hemen ere txapelketa irabazteko helburuarekin, noski.

LEGARRA
Prentsa
Liburuak
Tabakoa
Opariak
Kukuxumusu kamisetak
Fax publikoa
Plastifikazio a
Enkuadernazio
lanak
Egunero irekia
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA jauridenda
Bitiria 41-☎ 948 637518-LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60
31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

Santiagoko bidea egin dute Pilar Martikorena eta Gloria Maiak

Igande honetan izanen da Gasna eta Artisau Feria Eguna

UTZITAKO ARGAZKIA

Amuseneko Pilar Martikorena eta Salaiñeneako Gloria Maia, Donibane Garazin Santiago Bideari ekin ziotenean, apirilaren 22an.

Joseba eta Nerea

Joan den hilabetean bi herritarrek Santiagoko bidea egin zuten, Amuseneko Pilar Martikorenak eta Salaiñeneako Gloria Maiak. Apirilaren 22an hasi zuten bidaia Donibane Garazitik eta maiatzaren 18an ailegatu ziren Santiago de Compostelako katedral aitzinera. Egunero bataz bertze 30 kilometro egin dituzte, goizeko zazpietan hasten zuten etapa eta biak alderako bukatzen zuten. Bidea biek bakarrik egin dute, nahiz eta beraiek erran digutenez: *«albergetan lagunak egin ditugu, hagitz jende jatorra aurkitu dugu, beti laguntzeko prest, baina bidea biok elkarrekin egin dugu»*. Hala ere dena ez da arrosa bidea izan, momentu txarrak ere pasatu dituzte, batez ere eguraldiarengatik, *«bigarren eguna hagitz gogorra izan zen, haizea, euria, kazkabarra, baita elurra ere egin baitzuen. 13. eguna ere gogorra izan zen, haizea handia zegoelako eta hotza eta nekea handitu egin zelako»*. Hala eta guztiz ere, bidea egitea merezi duela erran digute eta Santiagoko katedralera iristerakoan poza handia sentitu zuten, momentu hunkigarria bizituz: *«sentimentu anitz elkartzen dira, poza, negar egiteko gogoa, nekea, lagunak uztearen pena, dena batera efortzen zaizu burura. Hagitz polita izan zen momentu hori»*.

Gasna eta Artisau Feria Eguna

Igande honetan eginen da bertze urte batez Gasna eta Artisau Feria eguna. Beti bezala, jende parrasta hurbiltzea espero da egun honen aitzakian herriko plaza bazterretara. Goiz osoan artisau eta eskulangileak izanen dira ikusgai herriko frontoian. Jendeak taloak jan, zerbait erosi eta herriko trikitilarien saioaz gozatzeko aukera izanen du. Eguerdian gasna lehiaketaren sari banaketa eginen da eta 14:30etan herri bazkaria. 17:30etan herriko dantzari ttikienek dantza-saioa eskainiko dute plazan.

Patinaje ikastaroaren akabila

Larunbat honetan akautuko da aurtengo patinaje ikastaroa. Urte hasieratik 30 bat haur larunbatero elkartu dira Miren Olaetxea eta Leire Olagarai irakasleekin patinen gainean hobekiago ibiltzen ikasi eta hainbat joku eginez ongi pasatzera. Gustura ibili direla erran digute irakasleek. *«Talde nagusiarekin hockeyan aritu gara gehienbat eta ttikienekin berriz joku erraxak egiten aritu gara. Ez dugu ezbeharrik izan eta larunbat goiz politak pasatu ditugu patinen gainean»*. Azkeneko eguna ospatzeko, joku berexiak eginen omen dituzte. Hurrengo urtean ere aitzinera segitzeko gogoz agertu dira irakasleak.

ARANTZA

Ternida eguneko besta antolatu du Ekaitza Elkarteak

Berrogei aranztar Katalunian dira oporraldia pasatzen

Nerea ALTZURI

Ez da herriko mendia Mendaur edo ternida, baina normalean tenore bertsuan eta aspaldiko usadioari jarraituz, egun bat badu mendiak izendatua. Herritik eta ingurutik, bertara oinez joateko ohitura bada eta Ternidako ermitan meza entzun edo bertzenaz gosaldu eta buelta egiten da. Bertze urtetan bezala, Ekaitza elkarteak, heldu den iganderako bazkaria antolatu du Senberroko bordan. Bertan prestatuko da bazkaria eta bazkalostea herriko trikitilariek alaituko dute.

Oporraldia Katalunian

Eskolako lagunek urtero izaten dituzte kanpaldiak tenore honetan. Aurten Hondarribia eta Zarautzen ibili dira. Aste honetan, berrogeita zortzi lagun Katalunia aldean dira oporretan, horietatik berrogei herritarrak dira. Urte dexente badira gisa honetako bidaiak antolatzen direla tenore bertsuan; Europan, Afrikan, Ameriketan, Espainian... lehen ere izan dira oporretan. Oraingo honetan Kataluniako txanda. Herritik abiatu ziren joan den igande eguerdian autobusean eta beuren autobusarekin dabiltza Katalunia bisitatzen: Costa Brava-Lroret de Mar. Leku interesgarriak ezagutzen ariko dira: Bañolas-Besaura, Bartzelona, Girona, Ampurda... Heldu den igande arratsaldean etorriko dira.

ARGAZKIA: BARBARA LUKANDOK UTZIA

Eskolaz kanpoko ekimen baten bultzatzaile gaztetxo kuadrila dugu argazkian. Badira bi hilabete Liberty Cirque deituriko antzezlana egin zuen lagun talde honek. Berandu baino seguru egin dugu aipamena eta erakutsi aktore talde gaztea. Segi horrelako ekintzak prestatzen neska mutilak!

ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Arantzako Zahar-Txokoan elkartu ziren Arantza eta Igantziko haurrei katekesia ematen aritzen diren lagunak. Giro ederrean joan zen lehenbiziko aldiz egiten den bilkura.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik ortziralara, 9:00etatik 15:00etara
• Astearteetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittirla 71 • Tlfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., Tlfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713
Non: La Vila kanrika, 4-behea • 31600 BURLATA
pabi@artekari.com
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguru Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Dirulaguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Etbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

PIKABEA pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

IGANTZI

Haur Hezkuntzak bi irakasle izanen ditu irailetik aitzinera

21 haur izanen dira heldu den ikasturtean hiru mailatan banatuak

Oskar TXOPERENA

Aldaketa garrantzitsua izanen du eskolaren antolaketak hurrengo ikasturtetik aitzinera. Aldaketak Haur Hezkuntzan –hirutik bortz urte bitarteko haurrak– izanen du eragina. Orain arte eskolako ttikienak astean zenbait orduz banatuak egoten ziren, lana modu egokiagoan egin ahal izateko. Irailetik aitzinera, ordea, bi taldetan egonen dira banatuak asteko ordu guzietan. Haur kopuruarengatik, talde orekatuak egin nahian, lau urtekoak egonen dira bakarrak talde batean eta hiru eta bortzekoak elkarrekin bertzean. Orain dela dozena bat urte hogeita hamar ikaslerik ez zuen eskola berrogeita hamarretik goiti izatera pasatu da azken urteotan. Zeinen garrantzitsua den hori herri ttiki batentzat!

ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Aurten elkarrekin egon diren Haur Hezkuntzako hiru mailatako ikasleak bi taldetan banatuak egonen dira hurrengo ikasturtean.

Piszinak

Zer erran anitz ematen ari da aurten piszinaren gaia, irekiko ote den edo ez ote den, sokorristarik arrautuko ote den, etabar…

Aurtengoz bederen irekiko direla iduri du, egin beharreko bi lan nagusietarako arrautu baitira langileak. Alde batetik, sorospen lanak kenduta, bertze gaineko lan guziak egiteko eskaintza aurkeztu zuten bakarrak Mª Jesus Telletxea eta Mª Josefa Etxeberria izan ziren. Eurei eman zien Udalak lana 4.000 eurotan. Bi lagunek ere hitza emana dute sorospen lanetan txandaka aritzeko. Beraz, gaiak oraingoz ez dauka itxura txarrik.

Bertzalde, joan den larunbatean, maiatzaren 29an, zen egitekoa piszina garbitzeko urteroko auzolana. Sasoiko abono eta eguneroko sarreren salneurriak ere egokitu egin ditu Udalbatzak. Hurrengoan aipatuko ditugu zehatzmehatz zein diren prezio berriak.

FLASH

Ana Sein herritarrak Kuluxka estetika zentrua ireki du Latsaga karrikan.

Kuluxka estetika zentrua zabalik

Horixe da hemendik aitzinera Latsaga Karrikaren 24an, Sarrola ondoan, izanen dugun establezimendu berriaren izena. Igantziko denda eta ostatuen itxiera aipatzea egokitu zaigun garai honetan atsegina da negozio berriak irekitzen direla erran behar izatea. Maiatzaren 22an ireki zituen Ana Sein herritarrak Kuluxkaren ateak.

Europako Hauteskundeak

Ekainaren 13an Europako Parlamenturako hauteskundeak izanen ditugu, aurtengo bigarrenak. Bozkatzeko asmorik baldin baduzu, hauexek izanen dira mahaian arrautuko dituzun herritarrak: Aitor Antxordoki Lehendakari lanetan, Ana Isabel Etxeberria eta Inaxio Etxeberria.

Kataluniara bidaia

Parrokiak antolatutako bidaian, Kataluniako Costa Bravan daude 44 lagun, 5 igantziar eta gainerako gehienak aranztarrak. Maiatzaren 30ean atera ziren eta igandean berean itzuliko dira, ibilbide eta egutegi estua bete ondotik.

estetika zentrua
KULUXKA
anasein
Aurpegiko garbitasuna • Makilajea eta tintea
Aurpegi eta gorputzeko masajeak eta tratamenduak
Depilazioak • Manikurak • Betileen permanente
Behin betiko depilazio elektrikoa

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

MALERREKA

Udal aurrekontuak onartu dituzte Iturenen eta Zubietan

Iturenen gastuak baino diru sarrera gehiago izanen dituzte

ttipi-ttapa

Iturengo Herriko Etxeak aurtengo udal aurrekontua onartu zuen apirilaren 30ean egindako batzarrean. Normalki, diru sarrera eta gastuetan berdinduak izaten dira aurrekontuak, baina Iturenen azkeneko bietan diru sarrerak gastuak baino haundiagoak egiten dituzte, azken urteetako galerak berdintzen joateko. Honela, 93.572 euroko superabita izanen da aurten, 521.669,40 euroko diru sarrerekin eta 428.097,94 ko gastuekin. Inbertsioei dagokienez, 155.902 euro erabiliko dira. Diru zatirik haundiena, 90.000 euro, Ameztiko bidea moldatzera bideratuko da. Datozen urteetan bertze lan haundi bat egiteko asmoa du Udalak, Aurtiz eta Iturengo ur-garbi eta saneamendu sareak berritzea. Proiektua idazteko 46.000 euro erabiliko dira aurten. Aurtiz eta Iturenen kloratzaile berriak egiteko 9.000 euro erabiliko dira eta bertze 9.000 euro kanposantuko obra akitzeko.

Batzar berean joan den urteko kontuak onartu ziren, baita biztanleen errolda ere. Urte hasieran 472 bizilagun zituen Iturenek, 237 gizaseme eta 235 emakume.

ARTXIBOKOA

Aurtiz eta Iturengo ur-garbi eta saneamendu sarea berritzeko asmoa du Udalak eta aurtengo aurrekontuaren barrenean, proiektua idazteko 46.000 euro erabiliko dira.

306.600 eurokoa izanen da Zubietako udal aurrekontua

Zubietako udal aurrekontuari dagokionez, 306.600,23 eurokoa izanen da, diru sarrera eta gastuetan berdindua. Inbertsioetan 68.920,37 euro erabiliko dira. Horietatik haundiena kanposantua haunditzea izanen da, 35.500 eurorekin eta mendi lanetara 24.989,84 euro erabiliko dira. Langilegoari dagokionez, 145.000 euro joanen dira udal langileen soldatak ordaintzen eta ohiko bertze gastuak izanen dira.

Trinitate Eguna ekainaren 6an Mendaurren

Aspaldiko ohitura segituz, Mendaur mendiko kaxkoan dagoen baselizan Trinitate Eguna ospatuko da igande honetan, ekainaren 6an. Goizean mezak izanen dira betiko orduetan eta eguerdian, Iturengo Ibintza kultur taldeak bazkaria antolatu du Mendaurko urtegian, eguraldiak laguntzen badu eta eguraldi txarra egiten badu Herriko Etxeko ganbaran eginen da. Eguna borobiltzeko dantzaldia izanen da Iturengo plazan.

LESAKA

PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

Euskal
Herriarentzako
izarra
GalEusCa
Europako Herriak
EMAN BOTOA
EAJ
PNV
www.eaj-pnv.com

DONEZTEBE

Bidasoako Musika Eskolak maiatzaren 22an bildu ziren

Laugarren Topaketa honetan bortzehun musikari izan ziren

J.O.

Arrakasta haundiz ospatu zen maiatzaren 22an Bidasoako Musika Eskolen laugarren Topaketa. Aurtengoan Doneztebeko Agorreta Musika Eskola izan da ospakizuna prestatu eta antolatzeaz arduratu zena eta horretarako azken hilabeteetan Musika Eskolako guraso, irakasle eta laguntzaileak lanean arituak ziren egunа prestatzeko. Ateri egon zen goiz osoan eta Doneztebeko karrikak musikariz beteak ageri ziren. Bidasoak bustitzen dituen herrietako Musika Eskolak bildu ziren Donezteben: Irun, Hondarribia, Hendaia, Berako Isidoro Fagoaga, Lesaka, Elizondo eta Doneztebeko Agorreta udal musika eskolak. Guzira 500 bat musikari gazte baino gehiago bildu ziren.

Goizean, Bearzana pilotalekuan paratu zen eskenatokian Ramon Etxebeste alkateak musikari guziei Ongietorria egin zien eta Agorretako ikasleek Agurra eskaini zuten ondotik. Segidan, musikariak talde ezberdinetan banatu ziren, herriko xoko guziak musikaz betetzeko. Udaletxeko aretoan Ganbara Musika saioak izan ziren, Santa Luzia plazan joera berrietako taldeak aritu ziren eta Bearzanan ere izan ziren emanaldiak. Bitartean, karriketan trikitilari eta panderojoleak, txistulariak, eskusoinujoleak eta bandetako musikariak kalejiran ibili ziren. Eguerdian, udal pilotalekuan eskaini zen amaiera kontzertua. Nerea Altzuri, Xorroxin Irratiko esatariak aurkezturik, musikari guziak instrumentuz instrumentu elkartu eta beren piezak jo zituzten, bukaeran abeslarien laguntzaz «Behin Betiko» doinu ezaguna eskaini zutelarik. Azkeneko kanta eskaini ondotik, parte hartu zuten musika eskola guziei oroigarriak banatu zitzaizkien eta Agorreta Musika Eskolako ordezkariek hurrengo urtean Bidasoako Musika Eskolen Topaketa antolatuko duen Irungo Udal Musika Eskolari eman zioten lekukoa.

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Bidasoako Musika Eskolen laugarren topaketako musika kontzertua hasi baino lehen dantza saioa ere izan zen. Ondotik, talde ezberdinek beraien emanaldiak eskaini zituzten. Aurten, Irun, Hondarribia, Hendaia, Bera, Lesaka, Elizondo eta Doneztebe bertatik elkartutako bortzehun musikari baino gehiago izan ziren topaketan. Heldu den urterako lekukoa Irungo Musika Eskolak hartu du.

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

616 513 491
Pittti
ESKABAZIOAK
C/ Amezti, 1
31700 DONEZTEBE (NAFARROA)

HEZKUNTZA

«Alda ezazu zure jokabidea» erakusketa ikastetxez ikastetxe

Elizondo Institutuko Lanbide Hastapeneko ikasleek prestatua

ttipi-ttapa

Elizondo Bigarren Hezkuntzako Institutuko Lanbide Hastapeneko programetako ikasleek prestatutako «Alda ezazu zure jokabidea» erakusketa ikusgai izanen da aste hauetan eskualdeko ikastetxe ezberdinetan. Honela, maiatzaren 31tik ekainaren 4ra Lekarozko Institutuan izanen da. Ekainaren 7tik 11ra, Toki-Ona Insitutuan izanen da, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, ikastetxe horretako Guraso Elkarteak antolatua. Ekainaren 14tik 18ra, azkenik, Doneztebeko erakusketa aretoan izanen da.

Erakusketa honetan, drogak eta alkoholak gidatzerako orduan duen eragina aztertzen dute Elizondoko ikasleek. Nafarroan bide segurtasunaren inguruan egindako lanik onena izan da, Renault etxeak antolatutako lehiaketa batean. Baztango ikasleen lana aukeratu zuen epaimahaiak, sormen eta originaltasun handikoa zelako. Gainera, lan honek jorratu ikuspegia izugarri eraginkorra izan daiteke, izan ere, bertze hainbat konturen artean, garrantzi handia eman baitzaie gazteen artean horren zabalduta dagoen droga eta alkohol kontsumo kontuei.

Madrilen maiatzaren 5ean egin zen Espainiako txapelketan beraiek izan ziren Nafarroako ordezkariak. Ez zuten lehiaketa irabazterik izan, baina gustora agertu ziren ikasle eta irakasleak esperientziarekin.

ARTXIBOKOA

Erakusketan ageri den hiruorrikoaren azala.

MALERREKA

Beintza-Labaiengo udala kudeatzeko batzordea izendatu du Nafarroako Gobernuak

2003ko maiatzeko eta urriko udal eta kontzejuetako hauteskundeetara kandidaturarik aurkeztu ez zenez, Nafarroako Gobernuak Beintzako udala kudeatuko duen batzordea izendatu zuen maiatzaren 24ko Gobernu batzarrean. Batzordea osatuko dutenak Francisco Javier Otxandorena Juanotena, Jon Telletxea Juanenea, Pedro Antonio Telletxea Arzuaga, Jose Jaime Mindegia Lopez, Angel Maria Elizondo Etxegia eta Rosa Maria Grazenea Esain izanen dira.

GOYA
arropak · maindireak
Mantak · nordikoak
toallak · kortinak
Alfonbrak
Altzate, 5 • 948630083 BERA

CINE-BANK
LEITZA
Pelikulak salgai
1: 6 € • 2: 10 €
Tel: 948 510994

GOIZUETA

Udala utzi egin du Eva Elizegi alkateordeak

Herriko Etxean ikurriña jartzeagatik salaketa jaso du Udalak

Udaletxeko balkoitik ikurriña kendu nahian auzitegietara jo du UPNren gobernuak.

Esteban AROTZENA

Maiatzaren 18an burututako ez ohiko bilkuran Eva Elizegi alkateordearen dimisioaren berri ofiziala jaso zuten gainerako korporazio kideek, arrazoi pertsonalak argudiatu dituelarik horretarako. Mari Jose Albistur, Javier Etxegia eta Mikel Urdanpilleta ziren hurrenez hurren orain dela urtebeteko udal hauteskundetan Goizueta Bizirik zerrendan ordezko postuak betetzen zituztenak. Hauetako batek hartu beharko du Elizegik udalbatzan utzitako eserlekua.

Komiki tailerra

Goxali eskolako liburutegiak, eskolak berak eta zonaldeko prebentzio programak ekainaren 8, 9 eta 10ean burutuko den Komiki tailerra antolatu dute. 15:30etatik 17:00ak bitarteko ordutegian eginen den ikastaro hau Ainara Aizpuru hernaniarrak emanen du eta Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoei eta DBHko lehenengo eta bigarren mailakoei zuzendua izanen da batez ere. Dena den, interesaturik egon litekeen edozein adineko herritarrak ere izanen du bertan parte hartzeko aukera. Horretarako Ana eskolako zuzendariari izena eman behar zaio.

Ikurriña

Orain bizpahiru hilabete Leitzarekin egin zuen bezala, Goizuetakoa eta beste sei udal salatu ditu Sanzen gobernuak ikurriña Herriko Etxeko balkoitik ez kentzeagatik. Nafarroako Goi Epategiaren aurrean aurkeztu da salaketa, eta udalak horren berri jakin bezain pronto bere abokatuaren esku utzi omen du gaia.

Eskola zaharreko teilatua

Mielanton etxe aurreko eskolak eta maisu-maistren etxebizitzak izandako eraikinaren teilatua teilatua berritzeko lana Zabala eta Goikoetxeari eman dio Udalak. Esleitu zeneko aurrekontua 42.500 eurokoa zen, baina hasieran uste baino askoz egoera txarragoan omen dago teilatua eta milaka euro batzuk gehituko omen zaizkio aipatutako aurrekontuari.

ARESO

Pake-Toki elkarteak hogeitabosgarren urteurrena ospatuko du ekainaren 6an

Nahi duenak ttipi-ttapa etxean jasotzeko aukera badu

ARGAZKIA: JAIONE ARTIBA

Urtero San Migelen bisita hartu genuen, maiatzaren 23an.

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren 6an Pake-Toki elkartearen hogeita bosgarren urteurrena ospatuko da. Egun osoan hainbat ekitaldi eginen dira. Lehenik, hildako bazkideen oroimenez meza izanen da, plazan salda beroa herritarrentzat, pilota partiduak, bazkaria elkartean eta ondoren, euskal musika. Egun berean, Larrea elkartean urteroko bazkaria eginen da.

Ttipi-ttapa jasotzeko

TTIPI-TTAPA jaso nahi duen guziak 948 635458 telefonora deitzeko bandoa argitaratu du Udalak. Nahi duenak doan izanen du, Udalak dagokiona oso-osorik ordaintzen baitu.

14 orduko ibilaldia

Tolosa-Tolosa hamalau orduko ibilaldian Alkozko Aitorrek eta Joaquin Ustakineneakoak parte hartu zuten, ibilbidea hasi eta bukatuz.

Zaharberritze lanengatik sariak

Cederna-Garalur erakundetik dirulaguntzak etorri dira, lehengo legealdian egin ziren zaharberritze lanengatik. Errota zaharra, Olazaharko zubia eta Sahastibeltzeko labaderoarengatik bi sari jaso ditu Udalak, bakoitza 3.000 eurokoa.

URDAZUBI

Salbatore monastegiko klaustroa erromesen aterpe izanen da

Gorapea eta teilatua moldatzeko hitzarmena sinatu dute Nafarroako Gobernuak eta Bidearen Lagunek

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak eta Urdazubi eta Baztango Santiago Bidearen Lagunak elkarteak Salbatore monastegiko klaustroa erromesen aterpe gisara moldatzeko hitzarmena sinatu dute. Akordioa, Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilariak eta Jose Fernandez D'Arlas Urdazubi-Baztango Santiago Bidearen Lagunak elkarteko presidenteak sinatu zuten. Proiektuak 115.144,15 euroko aurrekontua izanen du, bi zatitan banatua: teilatua moldatzeko 55.050,63 euro eta bertze 60.093,52 euro klaustroa aterpe gisara egokitzeko. Lehendabiziko zatia Nafarroako Gobernuak osoosorik subentzionatuko du, Santiago Bidea bultzatzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan dagoen diru sailetik. Bigarren zatia, Santiago Bidearen Lagunen esku izanen da. Elkarteak bertze erakunde publiko edo pribatuekin hitzarmenak egiteko aukera izanen du, konpromiso horri aurre egiteko. Monumentuaren mantenimendua ere Santiago Bidearen lagunen esku izanen da. Hiru helburu betetzen dira hitzarmen honekin: Nafarroako monumentu historiko baten moldaketa, eskualdeko turismoaren indartzea eta erljoaren eta aterpe erabileraren bateratzea.

ARTXIBOKOA

Klaustroa erromesendako aterpe gisara moldatzeko 60.000 euro beharko dira.

EUSKAL HERRIA
UDALBILTZA®
EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltzainfo.com

BIDASOA Goi-Mailako Lanbide Heziketa Institutua

Lan etorkizuna ziurtatzeko biderik seguruena

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.

Elizatxo, 10 20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010 · Faxa: 943 615 380 · e-Posta: secretaria@fpbidasoa.org

KALITATEA

BIDASOA Institutuak Kalitatean oinarritutako gestio-ereduen aldeko apustua egin du. Izan ere, **ISO 9000 ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak ematen duen **Zilarrezko Q Saria** eta orain berriki jaso den **Kalitatearen Estatuko Lehen Saria** horren lekuko dira. Beraz, EAEko eta Estatu osoko irakaskuntzarekin konparatuz, punta-puntakoa da Bidasoa Institutuaren kalitatea.

Hezkuntza Sailak Ikerketa eta Esperimentazio Zentru izendatua du, irakaslegoaren autogestioa bultzatu bidenabar, emaitza hobeak eta baliabideen probetxamendu osoagoa eskuratzen duelako.

IKASKETA ESKAINTZA

Bidasoa Institutuak eskaintzen duen goi mailako prestakuntza teknikoari esker, ezagutza eta formakuntza ona duten teknikoak sortzen ditu, lehiakorrak eta gure inguruko enpresentzat estimu handikoak diren teknikoak.

Era berean, lanean ari diren langileentzat *Prestakuntza Iraunkorreko Ikastaroak*; lanik gabe daudenentzat *Lanerako Prestakuntza* eta *Prestakuntza Teknologia Berrietan*, guztietan homologatuak.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia Berrietan buru-belarri sartua dago Bidasoa Institutua, eta baita Euskadiko berrikuntza teknologikoari buruzko proiektuetan ere: zuntz optikoaren bitartez programen transmisioa CNC makinei; irudi, hots eta datuen aldiberekotransmisioa irrati, intranet eta internetez; bio-eraikuntza; eguzki-zentral fotovoltaiko eta termikoen sarearekiko konexioa; ahotsa interneteko teknologia bihurtzen; elektizitate arloen eta areto orokorren domotizazioa; errendimendu handiko ikasgela; e.a.

NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

Leonardo eta *Sócrates* programen bitartez, 40 beka baino gehiago bideratu ditu Alemania, Finlandia, Frantzia, Suedia, Britainia Handia eta Grezian. Horrek agerian uzten du Bidasoa Institutuaren nazioarteko proiekzioa eta prestakuntzarik kualifikatuena bilatzeko ahalegina, bidenabar, atzerriko hizkuntzetan trebatuz tokian bertan.

PRAKTIKAK, ORIENTABIDEA ETA LANBIDERATZEA

Lantegietan egiten diren praktiken bidez ikasleen %60a lanbideratzen da praktikak egin diren lantegian bertan eta urtebeteko epean beste %80a beste enpresetan. Autoenpleguan ere erraztasun handiak

Proiektu Mekanikoen Garapena. Proiektu-Delineantea

Produktu Elektronikoen Garapena

ESKAINTZA AKADEMIKOA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Neurrira egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

SARTZEKO BEHAR DA:
DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak froga bidez

PREINSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 1etik 9ra
MATRIKULAZIO EPEA
Uztailaren 1etik 7ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA

- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

SARTZEKO BEHAR DA:
Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak froga bidez

ematen ditu: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzekin, enpresa sortzeko aholkua emanez... Azken urteotan, gaur egun lanean ari diren 4 enpresa sortzen lagundu du Bidasoa Institutuak. Ikasketak amaitu dituzten ikasleentzat, Orientabide eta Lanbideratze departamentuak LANGAIrekin elkarlanean, kasik %100eko emaitzak lortu ditu. Era berean, lanbideratzeari begira etengabeko segimendua egiten du Institutuak, ikaslegoari aukera berriak bilatzen lagunduz etengabe.

Instalazio Elektroteknikoak

Telekomunikazio eta Informatika Sistemak

Hirigintza Proiektuen Garapena (Topografia)

Zurgintza eta altzarigintza

Mekanizazioaren Bidezko Produkzioa

IRAKASKUNTZA

Berako Toki-Ona Institutuak ISO-9001:2000 ziurtagiria jaso du

II. Zernola Olinpiadaren bestan ere parte hartu dute ikasleek

ttipi-ttapa

Maiatzaren 20an, Nafarroako lau institutu publikok ISO 9001:2000 ziurtagiria jaso zuten Iruñean, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuan. Lau institutu horiek, Berako Toki-Ona Institutua eta Iruñeko Iturrama, Navarro Villoslada eta Plaza de la Cruz dira. Beraz, Berako Toki-Ona da hiriburutik kanpo ziurtagiria jaso duen bakarra.

Toki-Onak 2003 urtean EFQM Europa Brontzezko Zigilua jaso zuen eta horrekin, ikastetxearen etengabeko hobekuntzaren saiakerak aitortzen ziren.

ISO sistema ikastetxean ezarri ondotik eta Bureau Veritas Internacionalen ziurtagiria jasota, lortu dituzten hobekuntzak bere eguneroko heziketa ekintzetan erabiltzen dituztela ziurtatu nahi dute ikastetxetik.

Arestian aipatutako lau institutuak dira kalitateko bi errekonozimendu hauek dituzten Nafarroako ikastetxe bakarrak.

UTZITAKO ARGAZKIA

Berrehun ikasle bildu ziren Zernola Olinpiadaren bestan.

II. Zernola Olinpiadaren festa

II. Zernola Olinpiadaren festa ospatu zen maiatzaren 21ean Miramongo Zientzia Museoan, giro ezin hobean. Guztira 11-13 urte bitarteko, 200 umetik goiti izan ziren, sei ikastetexe desberdinetatik: Irungo San Vicente de Paul ikastetxea, Santurtziko Bihotz Gaztea ikastola, Gasteizko San Viator ikastetetxea, Tolosako Laskorain ikastola, Berako Toki Ona institutua, Errenteriako San Jose Hijas de la Cruz ikastetxekoak. Beraz, Nafarroako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ordezkariak izan ziren.

Eguerdiko 13:00etan iritsi dira ikasgela guztiak Miramongo zientzia museora eta gelako argazkia atera ondoren, bi taldetan banaturik planetariuma eta zientzia museoa bisitatu dituzte. Bertan, museoak berak aurkezten dituen misterio guztietan ibiltzeko parada izan dute umeek.

Bazkaldu ondoren, 15.30etan, Museoko Areto Nagusian elkartu dira Anjel Alkain aktoreak aurkeztutako jaialdian parte hartzeko. Zientzia olinpiadan zehar egin ziren proben errepasoa egin dute, eta Anjel Alkainekin batera bizkotxo bat egiten ere saiatu dira. Bukaeran, sari banaketa izan da, eta irabazleei, Gasteizko San Viator ikastetxeko 2.B gelakoei, Urbasako Bioitza kanpinean asteburuko batetako egonaldia egokitu zaie. Saria Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia den Itziar Nogerasek eman die.

II. Zernola Olinpiada honetan Euskal Herri osoko 92 ikasgelek hartu dute parte, lehengo urteko zenbakia ia bikoiztuz. Zernolako arduradunak oso pozik agertu dira lortutako emaitzarekin, horregatik jada, Zernola.net osatzen dutenek hasi dira urrian hasiko den III. Zernola Olinpiada prestatzen.

WWW.ZERNOLA.NET ATARIARI BURUZ

Elhuyar Fundazioak 2002ko apirilean jarri zuen sarean www.zernola.net.

Atariaren xedea 10-14 urte bitarteko gazteei zientzia hurbiltzea da. www.zernola.net-ek natura hobeto ezagutzeko erremintak eskaintzen ditu, eta zientziaren alorrean sortzen diren berrikuntzen berri ematen du; irakasleei lanerako material interesgarria jartzen die eskura, eta ikasleei zientziaren alderdi ludikoa erakusten die.

Eguzkiaren bi aurpegiak erakutsi ditu Farplus erakundeak

Eguzkiaren bi aurpegiak izenburupean solasaldiak eskaini ditu Farplus Leitza, Lesaka eta Nafarroako bertze zenbait herritan. Farplus elkartean farmazialariak biltzen dira eta osasun hezkuntzan zenbait ekitaldi egiten dituzte. Ikasturte honetan, errate baterako, ikasle ezberdinei ahoko garbitasuna eta zorriei buruzko informazioa eman zaie.

Eguzkitan beharrezko babesik gabe egotearen arriskuei buruz kontzientziatzea eta eguzkiak sortzen ahal dituen kalteak prebenitzeko ohitura osasungarriak bultzatzea dira kanpaina honen helburu nagusiak. Izan ere, haurtzaroan garrantzitsua da kanpoan ariketak egitea eta uda partean harreman haundia dute haurrek eguzkiarekin. Munduko Osasun Erakundearen arabera, urtero munduan 130.000 azaleko minbizi kasu berri gertatzen dira. Kontuan hartu behar da, azalpen horiek pertsona nagusia denean gertatzen badira ere, denboran zehar eguzkiak izan duen eraginaz gertatzen dira. Zenbait ikerketan arabera, Haurtzaroan hartutako ultrabioleta izpiek eragina omen dute melanoma agertzeko. Horregatik nahitaezkoa da haurtzaroan eguzkitik babestea.

LEITZA

Inguruko instituetako ikasleek musika emanaldia eskaini zuten

Belatetik Leitzara mendi ibilaldia egiteko aukera izanen da igande honetan

Mikel ILLARREGI

Joan den astean, urtero antolatzen duten moduan, Doneztebe, Altsasu, Bera eta Leitzako ikasleek eta musika irakasleek kontzertu bikaina eskaini zuten frontonean. Kontzertu hauetan bostehun ikaslek baino gehiagok parte hartzen du. Dena den, toki arazoak direla eta, denek ez dute eskaintzen dituzten bost kontzertutan parte hartzen. Guztira hamar lan ezberdin jo zuten, oinarritzat flauta hartuz eta haizezko, nahiz perkusiozko beste hainbat tresna lagun zutelarik.

Belate-Leitza mendi irteera

Datorren igandean, maiatzean egin beharreko mendi irteera antolatu du mendi taldeak. Honetan, Belateko gainetik Leitzara izanen da ibilaldia. Dena den, lasai gehiegi dela pentsatzen dutenentzat. Ibilaldia bi zatitan banatuko da eta nahi duenak lehen erdia, bigarrena edota osoa egiteko aukera izanen du. Herritik goizeko zortzietan aterako da Belaterantz eta lehengo zatia Orokietako gaina bitarte izanen da; lau bat ordu. Han nahi duenak autobusa har dezake herrira itzultzeko, besteek jarraituko dute bukaeraraino. Ohi den moduan izena herriko liburu-dendetan eman beharra da autobusa antolatzeko.

ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Jadanik aurtengo kultur astea amaituta, ekitaldi interesgarriak izan direla ezin uka. Alde batetik hitzaldiak, kanta saioak bestetik. Erakusketak, kirolak, diapositibak,... ikasteko batetik eta jai giroa bestetik. Jendea nahikoa zenbaitetan, gutxiegi beste bestetan. Hala eta guztiz ere, hortxe talde bat urtero eta urtean zehar hau guztia antolatzen aritzen dena. Eskerrak talde honetako kideei.

ARGENTINARRAK GURERA (8)

Marcela Fenoglio Mattioli eta Mario Alberto Gomez Arreche (Argentina)

Marcela Fenoglio Mattioli eta Mario Alberto Gomez Arreche argentinarrekin bildu gara. Marcelak jatorri italiarra ere badu, bere abizenek erakusten duten moduan. Hona etorri aurretik irakasle aritzen zen lehen hezkuntzan. Mariok berriz, euskalduna zuen aitona, Elduakoa hain zuzen. 1920. urtean garai hartako egoera zela eta, alde egitea erabaki zuen. Mario, salmentetan lan egiten zuen eta Marcela eta Agustin semearekin Rosarion bizi ziren. 2000. urtean hemengo senideen bisita izan zuen eta horrek eragin zuen Mario, lehenbiziko aldiz, honantz 2001. urtean etortzea. «*Han egoera oso-oso txarra zen. Hilaren bukaerara iritsiko ote ginen zalantzan ginen askotan, eta hori guk biok, lan egiten genuela*». Marcelak dio lan arazoa bazela, baina horrekin batera, kaleko segurtitate eza gero eta handiagoa zen. «*Ezin zitekeen jadanik umea kalean bakarrik utzi, kalera bizikletarekin atera, arropa etxetik zintzilika utzi,... dena lapurtzeko beldurra gero eta handiagoa zen. Argentinako erdi mailako klasea desagertu egin zen. Han, pobrezia beti izan da, baina orain miseria zabaltzen hasi da. Nik klaseak ematen nuen eskolako egoeran somatzen nuen aldaketa, gero eta familia gehiago desegiten ari zen. Umeek jasaten zuten egoera gero eta okerragoa zen*». Mariok gehitzen du «*enpresa eta zerbitzu mailan pribatizazio ikaragarria eman zen eta gainera inolako irabazirik gabe. Kanpotik, enpresak hartu eta inolako kontrolarik gabe kudeatu baina ekonomikoki ezeren truke. Botere judiziala ez zen batere independientea. Gobernu aldaketa eman zen, baina kaosa nagusitu zen. Jende asko eta asko, beste herrialdetan familia dutenak, atera zen Argentinatik. Eta horrelakoetan gertatzen ohi den moduan lan kualifikatua zutenek ere alde egin zuten*».

2002. urtean hiruak etorri ziren hona. Hemen oso tratu ona jaso dute hasieratik «*kontuan hartu behar dugu, babestuta izan garela, hemen familia dugulako eta hori abantaila oso handia da*». Hizkuntzarena traba izan zitekeela bazekiten. Halere, oso ongi hartu dute eta Agustinek euskaraz ikasten du. Marcela astean hirutan euskaltegira joaten da. Hemen oso gustura daude. «*Bietan lan egin behar da bizi ahal izateko, bai han eta bai hemen, baina, hemen eskubide gehiago somatzen dugu. Hemen badakizu, hilaren bukaeran kobratuko duzula. Etorkizuna planifikatu daiteke*». Marcelari bi urte kosta zitzaion honantz etortzea, heria uztearen minaz gain, «*edozein tokitan kanpotarrak izanen ginen eta diskriminaziorik ez nuen jasan nahi. Han ere emigrante pila dago eta diskriminazio egoera bertan ikusten da. Hala ere, esan behar da emigranteen artean klaseak daudela eta somatzen dugu beste batzuekiko jendea gogorragoa dela*». Beraien asmoa, egoera normalizatzea. «*Orain Argentinako egoerari buruz ez da deus ere aditzen, baina ez egoera hobeto delako, informatzen ez delako baizik. Oraingo informaziorako interesguneak, beste batzuk dira*». Dena den, noizbait bueltatzeko esperantza ez dute galdu. Zenbat eta beranduago izanda beste arazo bat, handia gainera izanen dute aurrean, Agustin gero eta «*hemengoagoa*» garatzen ari dela, alegia.

BAZTAN

Almandozko Bestaberri bestak ekainaren 9tik 13ra

Igandean profesionalen arteko pilota partiduak jokatuko dira

1967an herria edertzeko Espainiako sari nazionala irabazi zuen Almandozek.

Asteazkena 9
Bezpera

12:00etan besten hasiera ezkil jotzeekin.
22:00etan baztan-zopak eta ondotik Agerralde akordeolaria.

Ortzeguna 10
Bestaberri Bguna

8:00etan Aurora herriko karriketan barna. **12:00etan** Meza Nagusia. **12:45etan** frontoian hameketako herrikoia. **17:00etan** eskuzko pilota partiduak herriko haurren artean. **19:00etan** pala partiduak, herriko emakumeen artean. **20:00etan** kalderete herrikoia frontoian.

Ortzileria 11
Haurren Bguna

12:00etan Ginkana. **17:00etan** Gorriti eta bere animaliak herriko karriketan barna. **18:30etan** haurrendako txokolatada futbolinean. **20:00etan** mus txapelketa. **22:00etan** futbolinean afari herrikoia. **0:00etatik 4:00etara** dantzaldia LUARTZ taldearekin.

Larunbata 12
Zikiro-jate Bguna

11:30etan mus txapelketaren finalak. **14:30etan** zikiro-jatea eta ondoren dantzaldia Agerralderekin. **20:00etatik 22:00etara** eta **0:30etatik 4:30etara** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Igandea 13

12:00etan Meza Nagusia. **17:30etan** eskuzko pilota partida profesionalen artean, Frontis enpresaren eskutik: Zubieta eta Mendia, Errandonea II eta Elolaren kontra. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Aitorrekin. **0:00etan** Gaixoa Ni, bestei akabaila emanez.

Maderas GOMEN
- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE SARE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Fernando Arburua libre utziko dute 23 urte preso eman ondotik

Ekainaren 8an helduko da Zugarramurdira, bezperan Puerto de Santa Mariatik aterata

Artxibokoa

Ekainaren 8an itzuliko da sorterrira Fernando Arburua eta ekainaren 13an ongietorri bazkaria eginen da. Ekainaren 7an aterako da Fernando Puerto de Santa Mariako espetxetik

ttipi-ttapa

Heldu den ekainaren 8an, 23 urteren buruan, Fernando Arburua bere herrian berriz itzulian izatea espero dugu. Bezperan Puerto de Santa Maria presondegitik libro aterako da, eta aipatu dugun bezala, egun hortan gure artean izanen dugu. Familia eta herritarrekin goxo-goxoan egon ahal izateko "Arleun" elkartean berendu bat prestatua dago, arratsaldeko seiak inguruan (errekonozituko ote ditu Fernandok duela 23 urte Zugarramurdin utzitako xokoak eta bisaiak?). Ondoko igandean berriz (ekainak 13) ongietorriko bazkari bat eginen zaio "Armua" jatetxean. Bazkari honetarako tiketak aintzinetik hartu behar dira.

Udaberriko Bira

Udaberriko Bira heldu zaigu gure herri hauetara: ekainaren 12an, (larunbata) arratsaldeko 8tan Zugarramurdiko "Akelarrenea" elkartean Gorputz gudarostea" filma emanen dute; eta biharamunean (igandean) goizeko 11:30tan Urdazubiko pilotalekun "Panta Rhei" taldeak "Txintxilipudi erregina" antzestuko du.

Bide moldatzea

Hor dabiltza Baztan, Etxalar eta Zugarramurdiko udalak aferatuak hiru herri hauek elkartzen dituen mendipista antolatu nahiean. Zola berritzea izanen zen lan haundiena eta horrekin batera kunetak garbitu, bainan hala ere guzti hori egin ahal izateko 1,33 milio euro behar dira, eta udalek dirulaguntzarik gabe ezin omen dute gastu hori bere gain hartu.

ARGIBEL OPTIKA
Intzakardi 7 • DONEZTEBE • 948 450345
Santiago 62 • ELIZONDO • 948 581391

EKAINA
AUDIFONOEN HILABETEA
ARGIBEL OPTIKAN

Audifono bat erosteagatik %10eko deskontua

Argibel Optikan teknologiarik aurreratuena topatuko duzu eta Munduko audifono digital ttikienak.

Gainera:
• Probatzeko audifono bat izanen duzu
• Ordaintzeko erraztasunak

Ordua aitzinetik eskatu

BAZTAN

Historiako udal aurrekonturik haundiena onartu zen EAren aldeko botuekin

Hamabortz milioi euro baino gehiagoko diru sarrera eta irteerak izanen dira

ttipi-ttapa

Baztan Balleko Udalak bere historiako aurrekonturik haundiena izanen du aurten, 15.411.330,16 eurokoa, garai bateko 2.564 milioi pezeta. Maiatzaren 18an egindako udal batzarrean onartu ziren diru sarrera eta irteerak, Eusko Alkartasunaren aldeko botuekin eta UPNren aurkakoekin. Aurrekontu honen barnean sartzen dira Francisco Joaquin de Iriarte Erresidentziako gastuak, 1.468.600 euro, garai bateko 244 milioi pezeta terdi eta Baztan ikastolarenak, 477.340,16 euro edo 79,4 milioi pezeta. Beraz, udal aurrekontua 13,46 milioi eurokoa izanen da.

Kopuru honetatik %65a inbertsioetara bideratuko da. Egitasmorik haundienak, Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean daudenak izanen dira, 4,67 milioi eurorekin. Tartean, Irurita, Aniz, Arizkun, Elbete, Erratzu, Elizondo, Amaiur, Lekaroz eta Oharrizko saneamendu lanak eginen dira. Elizondo eta Elbete arteko zeharbidea moldatzea, berriz, 1,6 milioi euro gostako da. Bi lan haundi hauek eta Balleko Udalaren egoera ekonomikoak aurrekontua baldintzatu dute eta berriz ere bi milioi euroko mailegua eskatu beharko du Udalak. Diruzainaren txostenaren arabera, urtea akitzean 6,3 milioi euroko zorpetzea izanen du Balleko Etxeak eta gastu arrunten kontrol zehatza egin beharko da. Aurrekontuan ez da ageri Iruritako Dorrearen moldatzea, ezta Elizondoko eszena aretoa. EAko zinegotziek errandakoaren arabera, zenbait baserrietara ezin da anbulantziarik ailegatu eta hori moldatzea lehentasuna da udalarentzat. Aurrekontuan, ordea, Elizondo eta Aldude arteko errepide berria sartu da, herrian kontrako hainbat iritzi sortu dituen bidea. Bertze gastu haundixkoenak langilegoa, 1,82 milioi eurorekin eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan joanen diren 1,78 milioi euro izanen dira.

Diru sarrerei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren transferentziak 6,28 milioi eurokoak izanen dira, kasik sarreren erdia, eta zergen bidez 1,3 milioi sartuko dira.

UPNk kasu puntualengatik eman zuen kontrako botua. Adibidez, Iruritako hiltegian lanak egiteko 194.000 euroko gastua egitearen kontra agertu dira. *«Duela 15 egun horretarako dirulaguntzarik ez zela erran eta orai baietz. Bere garaian gaizki egin zen hiltegia»*. Erresidentziari dagokionez, kontuak kitatzeko etengabeko salmentak egitea, gaurko ogia eta biharko gosea dakarrela uste du UPNk. Gan den urteko kontuei dagokienez, UPNk bakarrik ikastolarenak onartu zituen, *«kudeaketa ona»* erakusten dutelako.

ARGAZKIA: ONDIKOL

EHNE sindikatuak egoitza berria ireki zuen maiatzaren 7an Elizondoko Gil



BAZTAN

Baztango Udako jostaldia antolatu du Euskara Zerbitzuak

Lau eta hamabi urte bitarteko haur eta gaztetxoendako zuzendua

ttipi-ttapa

Lau eta hamabi urte bitarteko haur eta gaztetxoendako Baztango Udako jostaldia antolatu du Euskara Zerbizuak uztail eta abuzturako. Goizeko 10:00etatik 13:00etara jokuak, eskulanak, tailerrak (musika, sukaldaritza, irratigintza, antzerkia...) txangoak, kirola, dantzak eta bertze zenbait jarduera eginen dituzte, lau txandatan banatuak: lehendabiziko txanda uztailaren 5tik 15era eginen da Iruritan, bigarrena uztailaren 19tik 29ra Erratzun, hirugarrena abuztuaren 2tik 12ra Elizondon eta laugarrena abuztuaren 16tik 26ra Oronozen. Udako jostaldiaren helburuak Baztango haurren arteko harremanak bultzatzea, Baztango kultura eta natura ezagutzea, haurren garapen pertsonala lantzea eta ingurugiroarekiko jarrera positiboak sustatzea dira, hori guztia euskaraz noski.

ARGAZKIA: ONDIKOL

Amaiur eta Arizkungo baserritarrek San Isidro eguna ospatu zuten. Ospakizun xaloa egin zuten bi herrietan. Lehenik meza izan zuten Arizkungo eta Amaiurko elizetan eta gero bazkaria, batzuk Etxeberrian eta bertzeek Mendialdean (argazkian). Eguraldi ederra lagun izan zuten eta horregatik aunitzek belarrari lehen kortea emateko probestu zuten.

Izen ematea ekainaren 4a baino lehen egin behar da Baztan Balleko Etxeko Euskara Zerbitzuan, 948 580006 edo 948 581007 telefonoetara deituz. Txandako 25 euro ordaindu beharko da, 20 euro familia ugaria bada (horren agiria aurkeztu beharko da izen ematerakoan) eta 18 euro txandan anai-arreba bat baino gehiago badira.

Iturri-Ederra Elkartea

Elizondoko ur-hornidura zerbitzua kudeatzen duen Iturri-Ederra elkarteak 18.971 euroko irabaziak izan zituen gan den urtean. Erakunde honek 139.785 euroko sarrerak eta 120.814 euroko gastuak izan zituen. Maiatzaren 22an urteko batzarra egin zuen Iturri-Ederrak.

FLASH

Giltxaurdi udal kirol instalazioa

Giltxaurdi udal kirol instalazioan eta Elizondoko igerilekuan lan egiteko deialdia egin du Gesport enpresak. Soin Hezkuntzan lizentziatuak, gimnasia, igeriketa monitoreak, aerobic eta muskulaziorako langileak behar dituzte. Euskara nahitaezko baldintza izanen da. Interesatuek kurrikuluma igorri behar dute helbide honetara: *Gesport; Plaza Eguzki 13, behea; 31792 Mutiloagoiti*. 948 153106 telefonoan (Inma) edo gesport@gesportsl.es helbide elektronikoak ere informazioa izanen da eskura.

Bai Euskarari Baztanen

Baztango euskalgintzaren eskutik eta Eskuaraz aise hobe izenburupean zenbait ekitaldi egin ziren maiatzaren 14 eta 15ean, Bai Euskarari Akordioa Baztanen egitarauaren barnean. Ortziralean Sara herriaren esperientzia jakinarazi zen eta Paula Kasares karrika neurketaren emaitzei buruz aritu zen. Larunbatean, Bai euskarari festa egin zen. Kontseiluak ziurtagiriak banatu zituen eta Baztango 25 bat elkarte, erakunde, komertzio, lantegi eta gizarte eragilek jaso zuten.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 • ✆ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

asnap y me
asesoría laboral de la pequeña y mediana empresa
• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA
• LANGILE AUTONOMOAK
· Garraioak
· Elektrizitatea
· Eraikuntza
· Igeltseroak...
• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
• ENPRESA GUZIAK
· Nominak eta Aseguru Sozialak
· Kontabilitateak
· IVA eta IRPF
· Garraioan asesoramendua
· Diru-laguntza ezberdinak
· Sozietateen inpositiboak
· Errenta aitorpenak
DONEZTEBE
ELIZONDO
IRUÑA

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 38 • ELBETE

SENPERE

Orma lantegia ez berpiztea deliberatu du merkataritza auzitegiak

Arretxea kolegioak berrogoi urte bete ditu

Franck DOLOSOR

Lizardiako Orma lantegia ez dela berriz irekiko erabaki du Baionako merkataritza auzitegiak. Gan den abenduan, auzitegi berak zuzentze judiziala agindu zuen 64 langile zituen lantegi hunentzat nagusiek diru problemak zituztelakotz. Denis Cailleton industrialak Ormaren lana berpiztu nahi zuen bainan lantegiko jabeen arabera ez omen du diru aski proposatu Lizardiako egoitza eta horko tresnak hartzeko. Auzitegiak argumentu hori kontuan hartu du eta ezetza eman dio Cailletoni. Orma hetsirik egonen da beraz.

ARGAZKIA: ANDER HARRIGARNEK UTZIA

Kolegioa izan aintzin, mutikoen eskola izan zen Arretxea.

Arretxea ikastegiak berrogoi urte

Arretxea ikastegiak haundizki ospatu ditu bere berrogoi urteak Magali Zubillaga, Gérard Luc, BYM eta ikasle guzien animazioekin. Maiatzaren 14ean, 300 lagun bildu ziren Arretxeako urtebetetzeko afarian. Ikasleen gurasoek, erakasleek eta ikasle ohiek mementu goxo bat pasatu zuten elgarrekin berrogoigarren urtebetetze huntan. Arretxea herriko instituzio bat dela erran ditaike kasik senpertar guziek loturak izan baituzte noizbait ikastegi hunekin. Gaurko egunean, 11 eta 15 urte arteko berrehun gazte biltzen ditu kolegio pribatu eta elebidun hunek. Sarako P. Hirigoien eta Senpereko M. Mauchamp-en ondotik, 1984az geroz Jean-Claude Bente da Arretxeako zuzendaria. Bente pozik agertu zen urtebetzean ikasleen %87k gainditzen dituelakotz BEPC azterketak.

AZKAIN

Pala txapelketa antolatu du Plazan ostatuak

Ekainaren 5ean «Hiri eta herri loreetan» eginen da Azkainen ere



Angela eta Xamo

12. aldikotz, Plazan ostatuak pala txapelketa antolatuko du ekainaren 15etik goiti. 3 hilabete iraungo du.

Lehen urteetan 30 talde baino guttiago ziren, ganden urtean 75 bikote esku hartu zuten.

Parte hartzeko bietatik bat bederen azkaindarra izan behar da. Hiru sail izango dira, beteranoak baita ere neskak aritzen ahalko dira. Ekainaren 13a arte izenak emaiten ahal dira zenbaki honetara deituz: 05.59.54.00.80

Azkain loreetan

Aurten ere herriak parte hartzen du "Hiri eta herri loreetan". Honen kari, ekainaren 5 eko asteburuan animazio desberdinak antolatuak izango dira. Larunbatean, goizeko 7etatik goiti hasiko da Larrunen. Han bertan 350 pottoka bilduak izango dira herriko plazara ekarrarazteko. Herran bertan ekitaldi desberdinek plaza animatuko dute egun osoan: ardi eta behi erakusketa, merkatua, baratze kreazioa, txopinondo jastaketa, ardieri ilea moztu, pottoken konkurtsoa eta abar.

17:30etan sail emaiteak izanen dira. Ikasleak dantza taldeak egunа bururatuko du erakusketa batekin.

Nazio arteko txapelketa herrian

Euskal kirol eta kultura bultzatzeko, Txapeldunak elkarteak eta Azkaingo herriko etxeak "Jean Sauvé" txapelketa proposatuko digute heldu diren uztailaren 8, 9 ta 10an. Nazio arteko txapelketa horrek espanol, frantses, mexikar eta euskal selekzioak bilduko ditu, hiru kirol desberdinetan: frontenisa, joko garbi eta esku uska.

Asteburu hori osatzeko, antolatzaileek hiru erakusketa presentatuko dituzte leku berean, pilota, musika ta janariaren inguruan

Abisuak

Ekainaren 12an larunbatarekin, selauru husketa izango da herriko plazan.

Ekainaren 13 an igandearekin mutxikoak dantzatzeko parada izanen duzue, meza ondoren.

Saskibaloia

Saskibaloiako minim mutikoak departamenduko txapeldunak bilakatu dira maiatzaren 23an. Xehetasunak kirol hostoan (29).

Romano zubiko jostalekua

Herriko etxeak, jostaleku berri bat muntatzen ari da romano zubiko aintzinean. Duela hilabete batzu, saskibaloi eta eskubaloinean jostatzeko panoak ezarri zituzten herriko langileek Geroztik gazte andana bat etortzen da asteburuetan, baita ere asteazkenetan tresneriak erabiltzerat. Gan den astean sabulu batzu instalatu dituzte, ttipientzat.

Okindegia Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIAN
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapela
JATETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erreteko jakietan
Ordoki industrialdea · Tfnoa: 948 45 34 03 · 31713 ARIZKUN

Zure ingurua klase guztiko inoektuz (somoro, zinaurre, armarria, kukuru...) eta arratoi-eagutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Poliilen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN
666 235 466
948 630 683
Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

SARA

Joko Berriko txapelketaren finalak iragan dira maiatzaren 15ean

Sarako Urtxintxak nesken eskubaloi taldeak finalean galdu zuen

Saski eta Joana

Maiatzaren 15ean, larunbatarekin, iragan dira joko berriko txapelketaren finalak polikiroldegian. 4 multzoen finalak jokatu dira goizean eta ondotik bazkari on baten inguruan gozatu dira. Txapelketaren emaitzak hoiek izan dira : laugarren multzoan, Borda-Iriarte 40-39 Sorrondo-Sein, hirugarrenean, Hirribarren-Etcheverry 40-33 Arrangoitze-Arrangoitze, bigarrenean, Urbistondo-Olazagazti 40-38 Barreneche-Elizalde eta lehen multzoan Jauregi-Dufau 40-33 Inda-Tellier.

Esku baloian neskek finala galdu zuten

Angelun, St Jean gelan iragan den finalean maiatzaren 21ean, ortziralarekin, Sarako Urtxintxako neskak galdu dute 21 eta 15 Urruñako ekiparen kontra. Jende ainitz urbildu zen gure neskak animatzeko bainan ez da aski izan. Hala ere sasoin eder bat egin dute finaleraino airatzeko, eta agian heldu den urtean bide hortan segituko dute.

Jakin behar da, ekainaren 5ean, larunbatarekin Sarako Urtxintxak, esku baloi txapelketa bat antolatzen duela. Arratsaldeko 2etan hasiko da, denei idekia da eta ondotik afari bat izanen da.

Sarako Izarra errugbia

Sarako errugbilariek ere beren sasoina bukatu dute maiatzaren 16ean, Amou-ko zelaian Barkoxe xiberutar ekiparen kontra. Frantziako txapelketaren lehen itzulia zen eta Barkoxe nagusitu da 19 eta 18 gure mutilen kontra, entsegu bat emanez azken minutetan. Zoritxarrez Saratarrak hor gelditzen dira, bainan haiek ere sasoin eder bat erakutsi digute.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Jose Angel Bergara Bayones eta **Liliana Camino Goñi**, Arraioz eta Elizondokoa, maiatzaren 8an.
Miguel Pruaño Etxeberria eta **Idoia Goñi Otxandorena**, Elizondokoak, maiatzaren 15ean.
Jose Manuel Juanena Santesteban eta **Begoña Larraza Mitxeltorena**, Urrotz eta Doneztebekoa, maiatzaren 15ean.

SORTZEAK

Amagoia Mindegia Benito, Eratsungoa, apirilaren 5ean
Oihana Etxeberria Elizalde, Igantzikoa, maiatzaren 8an.
Egoitz Baraibar Etxarri, Leitzakoa, maiatzaren 13an.
Haize Oiartzabal Aizpuru, Legasakoa, maiatzaren 5ean.
Xiker Ordoki Larramendi, Berakoa, maiatzaren 17an.
Leire Zubieta Gurrutxaga, Goizuetakoa, maiatzaren 3an.
Haritz Sagaseta Urrotz, Donamariakoa, maiatzaren 7an.
Lorea Santesteban Goizueta, Zubietakoa, maiatzaren 15ean.
Marion Elizalde Howard, Zubietakoa, maiatzaren 15ean.
Uxoa Iparrea Rekarte, Iruritakoa, maiatzaren 9an.
Julene Baylon Urtasun, Iruritakoa, maiatzaren 1an.
Maddi Iribarren Aleman, Amaiurkoa, maiatazren 20an.
Xabier Ariztia Sarratea, Arizkungoa, maiatzaren 24an.
Oihana Etxeberria Elizalde, Igantzikoa, maiatzaren 8an.
Erik Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, apirilaren 29an.
David Miguel Mitxeo Zozaia, Doneztebekoa, maiatzaren 17an.

HERIOTZAK

Maria Arratxea Arostegi, Elizondokoa, maiatzaren 11n, 97 urte.
Justa Etayo Akesolo, Elizondon, maiatzaren 13an, 98 urte.
Maria Jesus Ariztegi Migelena, Urrozkoa, maiatzaren 14an, 87 urte.
Fermin Mendiburu Etxenike, Zugarramurdikoa, maiatzaren 12an, 72 urte.
Jose Javier Sesma Elkorobarrutia, Lesakakoa, maiatzaren 17an, 77 urte.
Cornelia Santesteban Uranga, Urdazubikoa, maiatzaren 15ean, 85 urte.
Jose Fermin Urkiola Zestau, Leitzakoa, maiatzaren 18an, 46 urte.
Manoli Barnó Iturburua, Elizondokoa, maiatzaren 20an, 86 urte.
Maritxu Altzugarai Ordoki, Lesakakoa, maiatzaren 20an, 85 urte.
Francisco Asensio Merino, Berakoa, maiatzaren 24an, 85 urte.
Damaso Etxeberria Irigoien, Erratzukoa, maiatzaren 24an, 79 urte.
Martina Etxandi Elizetxe, Erratzukoa, maiatzaren 24an, 91 urte.
Maria Tomasa Apezetxe Gamio, Iruritakoa, maiatzaren 24an, 93 urte.
Dionisia Matxikote Ordoki, Igantzikoa, maiatzaren 25ean, 80 urte.

Maria Concepcion PEREZ FERNANDEZ

2004ko maiatzaren 13an hil zen Lesakan, xx urte zituela

Beti gure oroimenean egonen zara
Mila esker guztiarengatik.

SEME-ALABAK eta BILOBAK.

Luis Mari MAIA ARIZTEGI

3. URTEURRENA

Zurekin ditugun oroimenak gure bizitzako poza eta indarra dira.

EMAZTEA ETA SEME-ALABAK

Etxalarren,
2004ko ekainaren 10ean

Eskela eta eskertzak
948 635458

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da.
Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa**ra igorri faxez (948 635457) edo postaz argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.
(Andutzeta 12, 31760 Etxalar)

Miriam ERKIZIA *Berako futbolaria*

«Talde onenekin batera Superligan aritzeko maila badugula erakutsi dugu aurten»

• 25 urte bete ditu aurten Miriam Erkizia, Berako futbolariak. Hamabi urte daramazki futbolean, zortzi Gure Txokoan eta azkeneko lauak Barañaingo Lagunak taldean.

• Jokalari beterana izanagatik, aurten lehen aldiz Emakumeen Superligan jokatu du eta esperientzia positiboa izan da beretzat «jokalari onenen kontra jokatu dugulakoz».

• Nafarroa, Euskadiko eta Espainiako selekzio absolutoetan jokatu du erdiko atzelari honek, baita Euskadiko 16 urtez beheitikoan eta Espainiako 18 urtez beheitikoan.

Aitor AROTZENA

Emakumeen Superligan lehen aldiz jokatu du Miriam Erkizia beratarrak. Herriko Gure Txokoa taldean hasi eta lau urte daramazki Lagunak taldean. Futbolaz gain, Iruñean lanean eta ikasten ari da Erkizia. Izan ere, *«futboletik bizitzea, neretzat behintzat, orain ez da posible. Gazteak direnentzat, igual aukera gehiago izanen dira. Dena den, erdi-profesionalak diren taldeetan ere gero eta arazo gehiago dituzte fitxak ordaintzeko. Azkenean diru pila bat da eta laguntzak lortzea ez da errexa. Bi urtez txapeldun izan den Bilboko Athleticen, adibidez, ez du inork kobratzen. Lagunak taldean erabaki zen diruarekin bidaiak ahalik eta erosoenak egitea eta alde horretatik ezin gara kexatu»*. Joan den denboraldian igoera lortu eta Superligako lehen denboraldian ongi ibili da Lagunak taldea. *«Esperientzia ona izan da, gogorra eta denboraldi luze-luzea izan da. Zalantza genuen zer maila emanen genuen, eta ikusi da baietz, hor aritzeko maila badugula. Zazpigarrenak gelditu gara, baina goitiago gelditzeko aukerak izan ditugu. Igual, lehenbiziko urtea dugulako, talde gaztea dugulako, momentu auniztan burua galtzen dugu. Dena den, talde onenen kontra jokatu dugu, tentsioa, emozioa... esperientzia ona izan da»*. Ikusle aldetik ere alde nabarmena somatu dute: *«Iruñean jende gehiago etortzen da eta bertze futbol zelai batzuetan ere jendetza etortzen da, Bilbon gehiena. Egunkarietan ere gehiago ateratzen gara»*. Lehen itzulian, lau lehenbiziko postuetan gelditzeko eta Kopan aritzeko borrokan aritu ziren, baina helburu hori lortzea ezinezkoa bihurtu zenean, taldeak beherakada somatu zuela uste du Miriamek. *«Psikologikoki hustu ginen. Halere, hasierako helburuak soberan bete ditugu»*.

«Futbolaz bizitzea ez da posible. Erdi-profesionalak diren taldeetan ere gero eta arazo gehiago dituzte fitxak ordaintzeko»

Bi beratar Superligan

Miriam Erkizia beteranak Ane Bergara herritar gaztea izan du lagun aurten taldean. *«Hagitz ongi egokitu da taldera, kategoriako gazteenetakoa izan arren partidu guzietan aritu da, hasieratik ez bazen ere... etorkizun haundia du»*. Athletic-ek bigarren aldiz irabazi du Superliga, baina Lagunak taldearen kontrako bi partidak doi-doi irabazi zituen. *«Talde ona da, blokea egina dute eta ligako ekipo fuerteenetakoa da. Gu baino gehixeago dira, baina ez horrenbertze»*. Bertze taldeetan izarrak izaten dira. Horietako bat Rayo Vallecanon aritzen den Ronaldinha da. Bera markatzea suertatu zitzaion (argazkian). *«Jokatzen duena baino espektatiba haundiagoa sortzen du, aurrelari hobeak badira»*.

SASKIBALOIA

Azkaingo «minim» taldea departamenduko txapeldun

Maiatzaren 23ko finalean aise irabazi zion Mirepeix taldeari

Angela eta Xamo

Azkaingo Saskibaloiako minim mutiko taldeak departamenduko txapeldunak bilakatu dira gan den maiatzaren 23an, Mirepeix taldearen kontrako finala 75-53 irabazita. Urtean zehar, erakutsi digute merezi dutela txapela lortzea.

Bestaldetik, Azkaingo kadet mutikoek eta xito neskek ez dituzte finalako ateak hunkitu, bainan sasoi eder bat ateratu dute hala ere. Emaitza horien arabera, konturatzen gira entrenatzaileek egindako indar guziek bere fruituak emaiten dituztela azkenean.

UTZITAKO ARGAZKIA

Azkaingo minim mutikoen saskibaloi taldeak sasoi ederra borobildu du departamenduko finala irabazita.

ATLETISMOA

Doneztebeko Herri Krosa ekainaren 20an

ttipi-ttapa

Doneztebeko Erreka kirol elkarteak Herri Krosaren XVI. edizioa antolatu du. Ekainaren 20an, igandean, burutuko da laisterketa hau. Inskripzioak egun horretan bertan eginen dira irteera puntuan. Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etan aterako dira. Jubenilak, seniorrak eta beteranoak, berriz, 11:30etan. Sariei dagokienez, gizonetan lehenbizikoak 120 euro jasoko ditu, 90 bigarrenak, 60 euro hirugarrenak... Emakumeetan irabazleak 60 euro jasoko ditu, 45 bigarrenak eta 30 hirugarrenak.

MENDIA

Mendi Itzulien sasoian mendizaleak gustora

Baztan, Arantza eta Sarako Mendi Itzuliak igaro berri dira

tttipi-ttapa

Mendira joateko garai txarrik ez omen da, baina udaberriak xarma berezia duela ezin ukatu. Horregatik, inguruko mendi taldeek urte sasoi hau aukeratzen dute mendi itzuliak antolatzeko. Maiatzaren 23an egin zen Baztango Mendi Itzulia eta aste hondar honetan egin dira Arantza eta Sarakoak. Baina eskualdeko mendizaleek bertze ibilaldietan ere parte hartzen dute. Honela, argazkian ageri diren Miguel Angel Martinez eta Joxe Telletxeak, Tolosa-Tolosa 14 orduko ibilaldian parte hartu zuten maiatzaren 16an, Berako eta eskualdeko hainbat mendizalek bezala.

UTZITAKO ARGAZKIA

Mendizale taldea, Tolosa-Tolosa hamalau orduko ibilbidea egin ondotik.

AGENDA egunez egun

ZAKURREN TXERTOAK

BERA

Ekainaren 7 eta 8an errabiaren aurkako txertoa eta mikrotxipa jartzea Herriko etxeko bajeran, 16:00etatik 19:00etara.

ETXALAR

Ekainaren 9 eta 10ean errabiaren aurkako txertoa eta mikrotxipa jartzea hiltegi zaharrean, 16:00etatik 19:00etara.

DIAPOSITIBAK

ELIZONDO

Ekainaren 11n elizondar bidaiarien diapositiba zikloaren barnean, Joseba Otondok «Bizikleta bat kontinente batendako: Greziatik Norddkapera, Norddkapetik Euskar Herrira» aurkeztuko du 20:00etan Arizkuneneako hitzaldi aretoan. Gaztetxearen aldeko ekitaldien barnean.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Ekainaren 6an Mendaurko Trinitate Egunera joanen dira Sunbillako Illurdi mendi taldekoak.
Ekainaren 13an Berainera ateraldia eginen dute.

BAZTAN

Ekainaren 6an Baztango mendigoizaleek Irubelakaskora ateraldia eginen dute.
Ekainaren 12an mendi ibilaldia antolatu da, Elizondoko Gaztetxearen aldeko ekimenen barnean: 8:00etan abiatuko dira Elizondoko plazatik Iratira, Iraunkotunturra mendia goititzeko.

ZUGARRAMURDI

Ekainaren 13an Oiartzunera ateraldia eginen du Zugarramurdiko Atxuria mendi taldeak.

TELEBISTAKO TXOKOA

INGURUMENAREN EGUNAREN INGURUAN

Bidasoa Errekaren Eguna ikusgai ttipi-ttapa telebistan

Ekainaren 12an, larunbatarekin, Bidasoa errekaren Eguna eginen da. Baztan-Bidasoako ibai eta errekak garbitzeko jardunaldi hau duela lau urtetik honat ingurumen-boluntarioen programaren barne egiten da eta lau urte hauetan bere xokoa izan du TTIPI-TTAPA TELEBISTAN. Aurten ez da guttiago izanen eta herri ezberdinetako irudiak eta elkarrizketak bilduko ditugu. Ingurumenarekin loturik, astebete lehenago, hau da, igande honetan, Bertizko jaurerriaren natur parkean ateak zabalik jardunaldia eginen da eta hainbat ekitaldi antolatu dira: Aizkolegira bisitak eginen dira mikrobusean; kirol jarduerek ere bere tartea izanen dute eta egun osoan haurrendako rafting, jautsierak piragua eta kanoan, arku-tiroa eta herri kirolak izanen dira; kultur jarduerei dagokienez, Zubietako joaldunak, txistulariak, musika Trikidantz taldearekin, Argazki-Rallya, marrazki eta bertso lehiaketen sari banaketa izanen dira, baita eskulangileen produktuen erakusketa eta salmenta.

GASNA FERIA ETXALARREN

Eskulangileekin segituz, ekainaren 6an, XII. Gasna eta Artisau Feria izanen da Etxalarren. Guziak, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ikusgai.

DISKAK

«Osti Bi»

STUPENDA JONES BRIGADA CRIMINAL

GOR, 2004

Garai bitxiak egun bizi ditugunak. Estilo artistiko guztiek dute tarterik, entzulegoaren gustua monopolizatzen ez duten bitartean. Baina hori gertatuz gero, publikoa bera da gutxiespen sentimendu moduko bat adierazten duena. Lazkaoko Brigrada Criminal eta Olaztiko Stupenda Jones taldeek erdibana egindako disko honek argi uzten du denboraren gurpilak buelta aunitz ematen dituela, jendearen joerak etengabe mugituz eta atzo ahantzia genuenari gaurkotasuna eta oniritzia emanez. Bi taldeok sofistikazio ttipienetik ere ihesi dabiltza eta horrek nazioarteko rockean azkenaldian dabilen joeraren gure ordezkari egiten ditu: estiloen muinera, erraietara itzultzearena, alegia. Desagertzeko arriskuan dagoen espezie baten soinu ekipoan astintzera datoz: txozna eta lokalena.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Maiatzaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 20,00 € (=)

Zerri gizena
1,055 € kiloa. (+0,010)

Zerramak:
0,450 € Kg/bizirik. (-0,020)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,06 (=)
1.koa 2,89 (=)
2.koa 2,76 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,16 (=)
1.koa 3,02 (=)
2.koa 2,83 (=)

Charra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 255,00 (=)
idixkoak 266,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 192,00 (=)
idixkoak 220,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/2,96
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,60/ 5,80
8-10 kilokoak: 4,30 / 4,80

JAKIN BEHARREKOAK

Ikusmena eta familia

Familiarendako bizikalitate ona lortzeko ardura zure esku dago. Ez duzu bakarrik zure osasuna zaindu behar, zure ingurukoena ere bai, horregatik gomendagarria da guzientzat ikusmen kontrolak tarteka egitea.

Segurtasunarengatik eta pisuarengatik, lente organikoak dira egokienak betaurrekoak ibiltzen dituzten haurrentzat.

AHOLKU ERABILGARRIAK

• Eguzkirako: Kalitatezko eguzkitako betaurrekoak erabili, babes-filtro egokiekin. Segurtasunerako bermerik onena betaurrekoak legalki baimenduak dauden optika dendatan erostea da.

• Arriskuko lanak: Erradiazio kaltegarriak edo begietan kalte egiteko arriskua duen lana egiten baduzu, homologatutako babes-betaurrekoak erabili.

• Kirola eta lenteak: Lente organikoek begietako istripuak ekiditen dituzte, eta kirola egiteko edo motoan ibiltzeko gomendagarriak dira.

• Haurrak eta lenteak: Modu berean, segurtasunarengatik eta pisuarengatik, lente organikoak dira egokienak betaurrekoak ibiltzen dituzten haurrentzat.

• Haurrak eta ikasketa: Eskola-adinean dauden haurren %25ak ikasketa prozesua trabatzen duen ikusmen-arazoak ditu. Beraietako aunitz ez dira horren jakitun.

• Ordenagailua: Luzaz eta etengabe ordenagailuan jarduteak ikusmenean aldaketak sortu edo eragin ditzake, ezerosotasuna, nekea edo eskolan edo lanean errendimendu falta agertuz.

• 40 urtetik goiti: Presbizia edo «ikusmen nekatua» agertzeaz gain, espezialistarengana joatea gomendagarria egiten duten bertze aldaketa batzuk ere gertatzen ahal dira ikusmenean.

• Adinekoak eta gidatzea: Adineko pertsona bat gidatzen, auto istripu bat izateko aukerak bikoizten ahal ditu.

• Kirurjia errefraktiboa eta gidatzea: Kirurgia errefraktiboko ebakuntza bat (miopia, hipermetropia edota astigmatismo ebakuntzak) izan duen pertsonak sei hilabete igaro arte ezin du berriz ere gidatu. Denbora epe hau legalki ezarria dago eta espezialistak egoki baderitzo, luzatu ere egiten ahal da.

Argibel Optika

LIBURUAK

Neurona eta zeurona

Fermin ETXEGOIEN

PAMIELA, 2004

Fermin Etxegoienen lan honi aipamen berezia egin zioten 2003ko Zelaia sarian, izan ere hizkuntza hautatzearen auzia estetikaren ikuspegitik aztertuz eta eskarmentu nahiz gogoeta pertsonaletan oinarrituz, ez ohiko hausnarketa-proposamen interesgarria egiten du. Saiakera honetan grabitate legea, dentsitatea, ziber-espazioa, masa eta kosmobisioa bezalako kontzeptuak ageri dira, baina ezin erran astrofisika edo astronomiaren inguruko liburua denik. Fermin Etxegoienen arabera, erdal komunikabideek gurean sekulako indarra dute, eta horien oinarrian hizkuntza dentsoak daude, gaztelania eta frantsesa alegia. Hori dela eta, dentsitate handiko hizkuntza horiek euskal hiztunak ere erakartzen dituzte, grabitate legeak hartaratuta bezala. Horregatik, euskaraz solastea jarrera etiko zuzen batekin identifikatzen omen da, hau da, esfortzu txikienaren legeari kontra egitearekin.

AGENDA egunez egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Maiatzaren 25etik ekainaren 4 arte haurren margo tailerra erakusketa Arizkunenea Kultur Etxea, Fotogaleria lehen solairuan.

LEKAROZ

Maiatzaren 31tik ekainaren 4ra «Alda ezazu zure jokabidea» erakusketa Lekarozko Institutuan.

BERA

Ekainaren 7tik 11ra «Alda ezazu zure jokabidea» erakusketa Toki-Ona Institutuan.

DONEZTEBE

Ekainaren 14tik 18ra «Alda ezazu zure jokabidea» erakusketa Erakusketa Aretoan.

ZINEMA

ELIZONDO

Ekainaren 9an Monty Pythonen «La vida de Brian» filmea eskainiko da aire librean, 21:30etan.
Ekainaren 16an Terry Gilliamen «Brazil» filmea eskainiko da aire librean, 21:30etan. Gaztetxearen aldeko ekitaldien barnean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Mai. 31tik ekainaren 6ra

Lesaka (M. J Txoperena), Doneztebe (S. Larraioz), Arizkun, Oronoz-Mugairi, Leitza (M.I. Larraia).

Ekainaren 7tik 13ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, Narbarte, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (M.T. Plaza).

Ekainaren 14tik 20ra

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (J. A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telefonoan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin) 7 € Portal Kutxako 3008 0080 53 9703304626 kontuan sartu eta justifikatzea ttipi-ttapara igorri faxez edo posteaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkataritzako informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA
301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA
401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA
501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK
801. Agurrak

☎ 948 637281 (denda orduetan)



LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, beheitiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua. - 1.500 m²ko lur eremua inguruan.

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

ELIZONDO. Pisua salgai Santiago karrikan. Kalefakzio zentrala, bizitzen jartzeko prest. Prezio interesgarria. ☎ 606 407884.

BERA. Pisua salgai, sartzeko moduan. 120 m² Bidasoa karrikan, lehen solairua. Eguzkitsua. ☎ 626 141243.

BERA. Pisua salgai, Altzate karrikan. ☎ 679 476890 edo 948 630259.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisua errentan ematen da. Sukaldea, 4 logela, egongela, bi komuna. Hirugarren solairua. Gela guziek kanpoaldera ematen dute. Balkoia. Igogailua. ☎ 943 471987 (arratsaldetan, Begoña).

BERA. Apartamentu mobleztatua errentan emanen nuke. Bidasoa 43, 3. B. ☎ 948 631033 (17:00etatik aitzinera).

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

IRUÑEA. Neska batek pisua konpartitu nahi du. ☎ 619 529617.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BERA. Legia karrikan lokal komertziala errentan emateko. Denda edo bulegorako prestatua. ☎ 948 631429 (eguerditan).

DONEZTEBE. Lokal komertziala errentan ematen dut, arraindegirako prestatua. Negozio sendotua. Herriaren erdian, leku hagitz komertzialean. ☎ 948 450607 (11:00etatik aitzinera).

SUNBILLA. Igerileku ondoan ostatu-jatetxea errentan eman nahi da. ☎ 948 450504 edo 659 867 287.

LESAKA. 45 m²ko bejera komertziala errentan ematen da Albistur karrikan. ☎ 948 637780 edo 629 687171.

GARAJEAK/LOKALAK

111 Bertzelakoak

LEITZA. Taberna traspasatzen da, sukaldea, terraza, MIN. Errenta bukuna. ☎ 686 585378.

LANA

301 Eskariak

Emakume batek lan eginen luke externa moduan edo orduka. Paperekin. ☎ 639 925403.

Ekakume batek lan eginen luke adinekoak edo haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen. Paperekin. ☎ 618 834468.

Esperientzia duen neskak Sanferminetan kamarera gisa lan eginen luke. ☎ 620 529498.

Elektronika eta mantenimendua ikasi duen mutil batek lan eginen luke. ☎ 661 539702.

Sukaldaria esperientziarekin eskaintzen da, Bera edo inguruan lan egiteko. ☎ 616 878276.

LANA

302 Eskaintzak

DONIBANE-LOHITZUNE. Interna moduan lan egiteko neska bat behar da. ☎ 559261502.

Neska edo andre bat behar da bi ume zaintzen laguntzeko. 8:00etatik 10:30etara eta 18:00etatik 21:00etara. Elizondokoa bada hobe. ☎ 948 581341.

Neska bat eta mutil bat behar dira udan bi hilabetez lan egiteko. Frantses pixka bat dakitenak. ☎ 948 631100 (egunez) edo 948 630794 (gauez).

BERA. Kamarera eta sukalde laguntzailea behar ditugu. ☎ 650 831392 edo 948 631584

DONEZTEBE. Emakumea behar da kamarera gisara lan egiteko Ameztia ostatuan. Ahal bada esperientziarekin. ☎ 948 450028.

Lorezainainak, garbiketarako langileak, peoiak, zerbitzu anitzak, sukalde laguntzaileak... Udalebeak, Nafarroako Gobernua. Laister lanean hasteko Iruña, Tutera, Fiteron. Infor-

ADOS

- BERA-LESAKA.
  - Pisu pare bat salgai.
  - Terrenoak erosten dira.
- DONEZTEBE. - Eraikitzen ari diren azkeneko 2 pisu salgai.
- ELIZONDO. - Pisuak eta terrenoak erosten dira.
- LEITZA. - Etxe bat salgai.
- BORTZIRIAK. - Terrenoak eta baserriak erosi nahi dira.

BAZTAN-BIDASOAN. baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.

948 451 841 / 607 978 656

Lan bila zabiltza?

LAN ESKAINTZA

GIDARIAK

Nafarroako Gobernu eta Burlatako Udaletxean

13 lanpostu libre.

BIGARREN HEZKUNTZA HAUR HEZKUNTZA

Bigarren Hezkuntzan Lanbide Heziketan

176 lanpostu libre.

LAN ESKAINTZA

LORAZAINAK KONTSERJEAK MANTENIMENDUA

Herriko Etxe eta Nafarroako Gobernurako plaza libreak

BASO LANGILE eta OIHANZAINAK

Nafarroako Gobernuan

9 lanpostu libre.

Eskola Graduatua aski.

Presta zaitez. Informazioa dohan.

948 199 596

BERAKO SAN JOSE ZAHAR-ETXEAK
OSATU NAHI DU:

Langileen ordezkapenetarako zerrenda

BETE BEHARREKOAK:

- Formakuntza akademikoa: Eskola-ziurtagiria edo eskola-gradutatua
- Euskalduna izatea (hitz egiteko gaitasuna izatea)
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana edukitzea.

Izen-ematea CEDERNA-GARALUR eko bulegoetan ekainaren 11ko 14:00ak baino lehen. (Ordutegia: 8:30etatik 14:00tara)

Informazioa Cederna-Garalurreko Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzuko 619 82 92 89 telefonoan (Oskia)

SAMPI ARAGON ZOANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

MENDAUR MOTOR

948 450133 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN

ARRIETA

erlojudenda eta bitxidenda

Erretiroa dela eta likidazio osoa

Tel: 948 580445 • ELIZONDO

Sutarako pago egurra saldu eta etxera ematen dugu.

☎ 948 450135

ma zaitez. ☎ 948 199596.

Gidariak. Nafarroako Gobernuan 18 plaza libre. Zaindariak: haurrak zaindu, haurtzaindegia. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Ezinduak. Plaza finkoak erreserbatuak Osasunbidean, Nafaroako Gobernuan: garbitzaileak, gidariak, kamarerak, errekazainak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Iturginak, igeltseroak, zurginak, peoiak, laborategiko teknikari eta laguntzaileak. Plaza finkoak Nafarroako Gobernurako. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

Zaindariak bulegoetan, gaueko zaindaria. Nafarroako Gobernurako plaza finkoak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

Suhiltzaileak. Herri eta eskualdetako parketarako. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Osasunbidea. ATS/DUE 189 plaza bete behar dira, arizain laguntzailea, administrariak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Liburutegiko laguntzailea. Unibertsitate, Artxibo, Nafarroako Goberna, Udaletxeak eta Estaturako plaza libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Aurrezki kutxa eta bankuak. Laguntzaileak behar dituzte. baldintza: Batxilergoa. Laister deialdiak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Udaletxeak: Galar, Huarten administrari laguntzaileak behar dituzte. Laister lanean hasteko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Bidali
ttipi-ttapa
herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

✆ (+34) 948 635458

MOTORRA

501 Salerosketak

Peugeot Partner autoa salgai, 67.000 km, aldeko eta atzeko atearekin, erremolke engantxeam leiho igogailu elektrikoa eta ibiera zentralizatua. 7.500 euro. ☎ 680 317940 edo 948 631429.

Karro-erremolkea salgai, kobxe eta todoterrenoentzat. 1,10 m zabal eta 1,60 m luze. Toldo eta arkillarekin. Egoera onean. ☎ 639 439509 eta 948 451622.

Peugeot 405 autoa salgai, NA-AH matrikuladuna. ☎ 948 631334.

Volkswagen Golf 4 TDI autoa salgai, 110 cv, 3 ate, 108.000 km, 5 urtekoa. 10.800 euro. ☎ 679 012225.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Anilamientzat ura jartzeko bordetan, belatsoetan, mendian: salgai merke-merke 10 depositu. Mila litroko bakoitza. Hamar mila litro edukilezakeenak guztira. ☎ 948 510078. Jcxe.

EZKURRA. Bi urteko zezen gorria salgai. ☎ 948 615093 (20:30etatik aurrera).

DENETARIK

702 Salerosketak

Gazteendako logela salgai. ☎ 948 450750.

Egurra lantzeko zepilladora konbinatua, regruesadora eta konpresorea salgai. ☎ 690 616106.

urtebetetzeak

Argazki soila: 3,5 E . Bikoitza: 7 E . Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27E ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 E ko tzekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

Naiara Martin Goiak 7 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak.

Maria Jesusek urteak bete ditu maiatzaren 28an. Zorionak.

Maite Mideltorena Urbiondo donamariarak urteak bete ditu maiatzaren 23an. Zorionak bere lehengusu Mikel, Andoni, Jon eta Josuneren partetik.

Eider Urrutia Telletxea 4 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Aunitz urtez Xabier, atta, ama eta Elordiko familiaren partetik.

Joanes Irigoien Perez etxalartarrak 18 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Zorionak Nahiaren partetik.

Gaizka Gallardon Altzugarai etxalartarrak 16 urte bete ditu maiatzaren 24an. Aunitz urtez familiaren partetik. Aupa Erreala!

Unai Leiza Pereira lesakarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 7an. Zorionak familiaren partetik. Muxu haundi bat.

Andrea Etxeberria Elizalde igantzlarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak familia guztiaren partetik.

Arantzako **Agustin eta Maixuxxi** 25 urte bete dituzte ekainaren 2an elkarrekin ezkonduta. Zorionak eta muxu haundi bana Ximonenbordako famili guztiaren partetik!

Olatz Arakues Mikelajauregi lesakarrak ekainaren 2an urte bat beteko du. Zorionak «mononokita» zure anai eta lehengusuen partetik.

Martxel Larralde Monterrosa 2 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak eta muxu aunitz Lesakako familiaren partetik.

Almandozko **Fernando Agerre** aitatxik maiatzaren 28an 79 urte bete ditu eta bere iloba **Oihan Agerre Etxebertz**ek egun berean bete ditu 4 urte. Bieri aunitz urtez eta muxu haundi bana bere familia eta beraxiki Oihanen arreba UXoaren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO

TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

2004ko Jarduera Plana

[EKAINA]

Laguntzailea:

Nafarroako Gobernua
Industria eta Teknologia,
Merkataritza eta Lan Departamentua

ekaina 3

NEKAZARITZA-ELIKADURAKO ARAUTEGI ETA ZERTIFIKAZIOA

Ordutegia: 9.00etatik 14.00etara.
Tokia: CNTA - Laboratorio del Ebro-ko Batzar Aretoan (San Adrián)
Kostea: Doan
Izen emateak eta argibideak: Patricia Hernández cnta@cnta.es
(Baieztatu agertu behar izanez gero ekainaren 1a baino lehen)

ekaina 10

MAPA KONTZEPTUALAK

Ordutegia: 18.00etatik 19.00etara.
Tokia: Gorraiz (Gorraiz)
Kostea: Doan
Hizlaria: Alberto J. Cañas Jn., aditua Floridako Unibertsitatea (AEB-USA).
(Baieztatu agertu behar izanez gero ekainaren 5a baino lehen)

ekaina 9, 15 eta 16

EBALUATZAILE OFIZIALA EFQM MODELOAREN ARABERA

Ordutegia: 9an 9.00etatik 13.00etara. (dokumentazio ematea).
15ean 10.00etatik 19.30etara.
16an 9.00etatik 14.00etara.
Tokia: Nafarroako Industriaren Elkarteko AIN Batzar Aretoan (Cordovilla)
Kostea: 69,60 € (BEZ barne)
Hizlaria: Javier Indave Jn. (AIN)

ekaina 24 edo 25

EFQM MEMORIA LABURTUA

Ezagutu / praktikatu berria den EFQM memoria laburtua.

Ordutegia: 9.00etatik 14.00etara. (hautatu eguna izena ematerakoan)
Tokia: Nafarroako Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialeko Batzar Aretoan (Iruña)
Kostea: Doan
Hizlaria: Rafael Abajo Jn. (Kalitatearen Kudeaketa Kluba - Club Gestión de Calidad)

ekaina 28

IKASTAROA EFQM MODELORA SARRERA + PROFILA

Ordutegia: 9.00etatik 18.30etara.
Tokia: Nafarroako Industriaren Elkarteko AIN Batzar Aretoan (Cordovilla)
Kostea: Doan
Hizlaria: Javier Indave Jn. (AIN)

Informazioa eta izen emateak:
Fundación Navarra para la Calidad
Barañain etorb 10, 1.C 31008 Iruña
Tel.: 948 190 111 Fax: 948 196 045

www.qnavarra.com

abokatuak aholkularitzak akademiak akutxilladoreak akupunturistak ai
baiteroak alderdi politikoak aldizkariak altzariak anbulantziak antzerk
taldeak argazkidendak arrit arkitektoak armadendak
aroztegiak arrain hazk dendak artisautza ase
guruak ateak aterpe k bakailuak banket
xeak bazarrak bela lai agentziak bideo
grabaketak bideo botikak brikolaia
dantzalekuak de stak des einu grafikoa in
dustriala droge lektragail tea elkarteak en
balajeak eraikuntza erizain erlijioa remintak erresi
dentziak erretegiak eskabazioak es k etxe ruralak eus
kaltegiak farmaziak ferreteriak fi kopiak fruitudendak
funerariak garabiak garbiketa natzaileak gasnategiak
gasolindegiak geologoak ges ak gozotegiak grafikagint
za gruak harategiak harrobia astetxeak hotelak ibilgailua
igeltseroak ikastetxeak ika zunezkoak ileapaindegiak in
formatika ingeniariak inmo kontalariak irratiak iturgintza
janariak jantzidenda jatetxeak jostunak kafetegiak kalefakzioa kanpale
kuak kiroldendakkooperatibak kristaldegiak lan bertikalak landarea
lentzeriak liburudenda lore eta apostuak lurrindenda mar
moldegiak masaiak mediku mezulariak mobledendak mo
toak museoakmusikariak n riak oinetakoak ohiangintza oi
laskoak oinetakoak okinde dak osasun zerbitzuak optika
ostatuak papertegiak pents pintoreak pizzeriak posta bu
legoak prentsa publizidade iatrikoak sikologoak sindika
tuak sonorizazioa suhiltzail dak taller mekanikoak tanato
rioak taxiak telebistak tindategiak toldoak turismo bulegoak turismo et
xeak txatarrak udalak zahar etxeak zalditegiak zapatadendak zeramika
zerrategiakzur biltegiak zurgindegiak ...

BAZTAN • BERTIZARANA • BORTZIRIAK
LEITZALDEA • MALERREKA • URDAZURI
2004
telefono gida

ttipi-ttapa ren
Telefono gidan

Badakizu zenbat balio duen
zure anuntzioa
ttipi-ttapa ren
Telefono Gidan sartzeak ?

Inguru honetako etxe guzti-guztietan sartuko den Telefono Gidan
Ofiziale, saltoki eta lantegi guzti-guztiekin batera agertzeko
Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatua
Urte osoan eta momentu guzietan zure bezeroak kontsultatzeko erraxa
Zure iragarkia sartzeko aukera eta tarifa desberdinak dituen Gidan

...eskatu informazioa
948 63 54 58